

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

ENPLEGU, MERKATARITZA, TURISMO ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

498/2026 Erabakia, uztailaren 28koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onestea Arabako Foru Aldundiaren eta Foru Sektore Publikoaren estrategia digitala

Arabako Foru Aldundiak foru administrazioaren eraldaketa digitala definitu du gaur egungo legegintzaldiko lehentasunezko ardatz estrategikoen artean, funtsezko elementua baita kudeaketa publiko efizienteago, eskuragarriago, berritzaileago eta herritarrengan zentratuago baterantz egiteko. Ildo horretan, beharrezkoa da barneko administrazio prozeduren digitalizazioa bultzatzea, erakundearen efizientzia operatiboa hobetzea, zerbitzu publikoen kalitatea indartzea eta arreta integrala bermatzea, kanal digitalen garapena eta aurrez aurreko arreta modernizatua uztartuko dituen.

Arabako Foru Aldundiaren 2023-2027 Legegintzaldi Planak berariaz egiten du berrikuntzaren eta eraldaketa digitalaren alde, Lurralde Historikoaren erresilientziarako, lehiakortasunerako eta modernizaziorako palanka gisa. Ildo estrategiko horrekin bat etorritik, Industria 4.0 – Araba 4.0 ekimenek laguntzen dute enpresa sarean kultura digitala sortzen, digitalizazioaren arloko premia komunak identifikatzen eta lurraldearen hazkunde ekonomiko zein soziala bultzatuko duten lankidetzak proiektuak garatzen.

Testuinguru horretan, ezinbestekotzat jotzen da ibilbide orri estrategiko bat izatea, Arabako Foru Aldundiko sail bakoitzean eta hala behar duten foru sektore publikoa osatzen duten erakundeetan, digitalizazio eta eraldaketa digitaleko prozedurei modu integral eta koordinatuan heltzeko. Ibilbide orri horrek aukera eman behar du jarduketan plangintza koherente bat egiteko, bikoiztasunak saihesteko eta antolakuntza nahiz teknologia sinergiak bultzatzeko.

Halaber, funtsezkoa da ziurtatzea Arabako Foru Aldundiaren Estrategia Digitala behar bezala lerrokatuta dagoela inguruko beste administrazio publiko batzuen eraldaketa digitaleko agendekin eta Europako esparruan ezarritako helburuekin — bereziki, Europako Agenda Digitala 2030arekin —, erakundearen koherentzia, elkarreragingarritasuna eta jarduketaren jasagarritasuna bermatuz.

Estrategia Digitala prestatzeko prozedurak barne eta kanpo analisia izan du oinarri, hasieratik bertatik bideratuta egituratzen duten helburu orokorrak eta ardatz estrategikoak zehaztera. Horien artean nabarmentzekoak dira administrazio efizientzia handitzea, teknologia zerbitzu jasagarriak sustatu eta bultzatzea, gardentasuna eta herritarren parte hartzea sustatzea, bai eta herritarrek foru administrazioarekiko harremanean duten esperientzia digitala hobetzea ere.

Estrategiak barne hartzen du, gainera, Arabako Foru Aldundia lantzen ari den eta datozen urteetan aurrera egiten jarraituko duen palanka teknologiko nagusiei buruzko informazioa, zehaztutako ikuspegi estrategikoarekin lerrokatutako proiektu eta jarduketaren garapenaren bidez.

Estrategia Digitalean jasotako proiektu eta jarduketak zibersegurtasun eta konfiantza digitaleko, datuaren gobernantza eta adimen artifizialeko, herritartasun digitaleko eta eraldaketa digitaleko ardatzetan egituratuta daude, eta azken belaunaldiko teknologian oinarritutako bilakaera jarduketaren multzo zabala bat hartzen dute barne. Jarduketa horiei esker, azken belaunaldiko teknologietan oinarritutako zerbitzuak ezartzeaz gain, herritarrekin harremanetan jartzeko ohitura berrietara egokitu daiteke, administrazio prozedurak erraztu daitezke eta izapidetzearen arintasuna hobetu daiteke.

Estrategia Digitala hasieran lau urterako pentsatu da, eta jarraitutasun, jarraipen eta ebaluazio konpromiso argia dakar, baita 2030etik harago proiektu eta jarduketa lerro berriak sartzeko aurreikuspena ere, eraldaketa digital iraunkor eta epe luzeko ikuspegia finkatuz.

Estrategia Digitalak aplikatu beharreko legedi eta arau hauetan du oinarria:

- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2024ko ekainaren 13ko 2024/1689 (EB) Erregelamendua, adimen artifizialaren arloko arau bateratuak ezartzen dituen eta 300/2008 (EE), 167/2013 (EB), 168/2013 (EB), 2018/858 (EB), 2018/1139 (EB) eta 2019/2144 (EB) Erregelamenduak eta 2014/90/UE, 2016/797 (EB) eta 2020/1828 (EB) Zuzentarauak aldatzen dituen (Adimen Artifizialaren Erregelamendua).

- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2019ko apirilaren 17ko 2019/881 (EB) Erregelamendua, ENISari (Zibersegurtasunerako Europar Batasuneko Agentzia) eta informazioaren eta komunikazioaren teknologien zibersegurtasun-ziurtapenari buruzkoa eta 526/2013 (EB) Erregelamendua indargabetzen duena («Zibersegurtasunari buruzko Erregelamendua»).

- 311/2022 Errege Dekretua, maiatzaren 3koa, Segurtasunerako Nazio Eskema arautzen duena.

- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2022/2555 (EB) Zuzendaraua, 2022ko abenduaren 14koa, Batasun osoan zibersegurtasuneko maila komun altua bermatzeko neurriei buruzkoa.

Horregatik, eta Enplegu, Merkataritza Turismo eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuak hala proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau

ERABAKIA

Lehenengoa.– Arabako Foru Aldundiaren Estrategia Digitala onestea, foru erabaki honi eranskin gisa gehitzen zaiona.

Bigarrena.– Foru erabaki hau Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean eta Arabako Foru Aldundiaren webgunean argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko uztailaren 28a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Lehenengo diputatu nagusiordea eta Enplegu, Merkataritza, Turismo eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua

CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR

Zerbitzu Orokorraren zuzendaria

IKER MIRANDA SERRANO



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

Enplegu, Merkataritza Turismo eta Foru
Administrazioaren Saila
Departamento de Empleo,
Comercio, Turismo y Administración Foral

Zerbitzu Orokorreko Zuzendaritza
Dirección de Servicios Generales



ESTRATEGIA DIGITALAREN PLANA (2026- 2030)

ARABAKO FORU ALDUNDIA
ETA FORU SEKTORE PUBLIKOA



Aurkibidea

Aurkezpena	3
Esparru estrategikoa.....	4
Erreferentziazko estrategia digitalak.....	4
Palanka teknologikoak.....	7
Hasierako diagnostikoa	8
Testuingurua	8
Aurreko diagnostikoa	9
Estrategia Digitalaren Planaren oinarriak	15
Misioa, ikuspegia eta balioak	15
Helburuak	19
Arabako Foru Aldundiaren eta Foru Sektore Publikoaren Estrategia Digitalaren Plana	20
1. ardatza: Zibersegurtasuna	21
2. ardatza: Datuaren eta AAren Gobernantza	28
3. ardatza: Herritar Digitalak	40
4. ardatza: Eraldaketa digitala	49
Planaren gobernantza	60
Antolaketa eredua	60
Jarraipena	63
Beharrezkoak diren baliabideak	65



Aurkezpena

Azken urteotan, Arabako Foru Aldundiak ibilbide nabarmena egin du hainbat erakunderen eskutik, Arabako Lurraldean kohesioa bultzatu eta indartzeko eta, horrela, arrakala digitalaren eragina minimizatzeke.

Egindako bultzada eta ahaleginak Arabako Lurraldea sendotzen laguntzeko hainbat proiektu eta politikaren bidez adierazi dira, herritarrak ardatz nagusia izanik.

Gure lurraldea ez dago gizarte guztiek dituzten erroka global eta konplexuetatik kanpo, eta "Garapen Jasangarriaren aldeko Arabako 2030 Aliantza"ren bidez ahalegin handia erakutsi dugu sinergiak sortzeko eta lurralde gisa aurrera egiteko, inor atzean utzi gabe.

Era berean, Arabako gizarteak etengabeko bilakaera izan du denboran zehar Arabako Foru Aldundiarekiko harremanari dagokionez. Azken hamarkadan, gizarte, ekonomia eta lege mailako eraldaketa baten lekuko izan gara, eta horrek harremanetarako, arretarako eta herritarrekin komunikatzeko ohitura berriak sortu ditu.

Horrela, benetako eraldaketa digitala agertu da gure gizartean, garapen teknologiko eskerga batek bultzatuta; garapen horrek benetako eraldaketa digitala ekarri du gure gizartean, informazio orokorreko gailuetatik, hiri adimendunetatik eta askoz gehiagotik hasi eta adimen artifizialaren (AA), 5G konektagarritasunaren edota teknologia kuantikoen hedapeneraino.

Arabako Foru Aldundiak herritarrekin duen konpromisoa eskaintzen ditugun zerbitzuak egokitzeko etengabeko garapen eta ahaleginean islatzen da, optimizazio eta sinplifikazio ikuspegiari jarraipena emanez, elkarrengarritasunaren eta gobernantza aktibo, parte hartzaile eta gardenaren bitartez.

Horren guztiaren ondorioz, pixkanaka komunikazio eta harreman modu berrietarantz doan gizarte baten aurrean gaude, non digitalizazioak herritarren eskaerei modu arin eta eskuragarrian erantzuteko aukera ematen baitu eskaintzen ditugun zerbitzuen bidez, herritarrak gure politika publikoen gako nagusia izanik.


Arabako Foru Aldundia horretaz jabetuta dago, eta **Arabako Foru Aldundiaren eta Foru Sektore Publikoaren Estrategia Digitalaren Plana (2026-2030)** aurkezten du, Zerbitzu Orokorren Zuzendaritzak eta Estrategia Digitalaren eta Informatikaren Zerbitzuak sustatua, digitalizazioaren eta eraldaketa digitalaren garapenaren zein aurrerapenaren alde sendo eginez, erakundearen ikuspegi holistikoa batetik, non jarduteko ardatz nagusiak ezartzen baitira funtsezko ekintza batzuen bidez.



Esparru estrategikoa

Erreferentziako estrategia digitalak

Arabako Foru Aldundiaren eta Foru Sektore Publikoaren Estrategia Digitalaren Plana (2026-2030) bat dator eraldaketa digitalaren arloko erreferentziako estrategia eta esparru nagusiekin, Europako, estatuko eta autonomia erkidegoko mailan.



1. irudia. Erreferentzia-esparrua

1. Europako esparrua:

Europak bere **2030eko Agenda Digitalean** proposatzen duen egungo eta etorkizuneko testuinguruaren barruan, Europar Batasunak ibilbide orri komun bat ezarri du: **Hamarkada Digitalerako Programa**. Programa honek hurrengo hamarkadan Europako trantsizio digitala gidatu behar duten puntu kardinalak zehazten ditu:

- Digitalki kualifikatutako biztanleria eta kualifikazio handiko profesional digitalak.
- Azpiegitura digital seguru eta jasangarriak.
- Enpresen eraldaketa digitala.
- Zerbitzu publikoen digitalizazioa.

Programa honen osagarri da **Eskubide eta Printzipio Digitalei buruzko Europako Adierazpena**, estatu kideek pertsonak ardatz izango dituen trantsizio digital inklusibo batekin duten konpromisoa ezartzen duena, pribatutasuna eta jasangarritasuna errespetatuko dituen. Era berean, EBk adimen artifizialaren, datuen eta hezkuntza digitalaren arloko **estrategia sektorialak** bultzatzen ditu, ekonomia digital etiko, seguru eta lehiakorra



finkatzea helburu dutenak. Testuinguru horretan, Arabako Foru Aldundiak bere estrategia digitala lerrokatzen du Hamarkada Digitalerako Programaren eta Eskubide eta Printzipio Digitalei buruzko Europako Adierazpenaren helburuekin, pertsonak ardatz izango dituen eraldaketa bermatuz.

Europako esparruaren barruan, zibersegurtasuna ere funtsezko arloa da. Horregatik, Zibersegurtasunerako Europako Estrategiak zibermehatxuen aurreko erresilientzia handitzea du helburu, bai eta zibereraso nagusiei erantzuteko eta tresna digital fidagarriez baliatzeko gaitasun kolektiboak garatzea ere. Ardatz nagusien artean honako hauek daude:

- **Datuen babesa eta subiranotasun teknologikoa:** Administrazioek kudeatutako informazio guztia baimenik gabeko sarbideen eta segurtasun urraketen aurka babestuta dagoela ziurtatzea. Bestalde, subiranotasun teknologikoa erakunde batek bere informazioa eta azpiegitura digitalak kudeatzeko, biltegiratze eta babesteko duen gaitasuna da.
- **Nazioarteko lankidetzak:** Estatu kideen arteko lankidetzak sustatzea, zibersegurtasuna hobetzeko eta EB osoan ziberespazio seguru bat bultzatzeko.
- **Trebakuntza eta kontzientziak:** Administrazioen langileentzako prestakuntza programak sustatzea, zibersegurtasuneko jardunbide onenei buruz eta segurtasun gorabeherari aurre hartzeko eta haien aurrean erantzuteko.

Arabako Foru Aldundiak eta Foru Sektore Publikoak, beren eraldaketa digitaleko prozeduran, beren gain hartzen dituzte Europako printzipio horiek, eta beren planaren ardatz nagusien artean sartzen dituzte estrategian, herritarren konfiantza eta informazioaren osotasunaren babesa bermatuz.

2. Estatua:

Estatu mailan, **Espainia Digitala 2026 Agendak** herrialdearen eraldaketa teknologikoa bultzatzeko ibilbide orria zehazten du, Europako helburuekin lerrokatuta. Haren xedea da teknologia berriak aprobetxatzea hazkunde ekonomikoa bultzatzeko, kohesio sozial zein lurraldekoa indartuko duen enplegu produktibo eta kalitatezkoa sustatuz.

Hiru eremu nagusitan jarduten du:

- **Azpiegiturak eta Teknologia:** konektagarritasuna, 5G-a, zibersegurtasuna, AA eta beste teknologia disruptibo batzuk sustatzea.
- **Ekonomia:** ETEen eta administrazio publikoen digitalizazioa, ekintzailatza digitala eta teknologia industria balio kateetan zein ikus-entzunezkoen sektorean txertatzea sustatzea.
- **Pertsonak:** gaitasun digitalen garapena bultzatzea herritar guztien inklusio digitala errazteko, eta digitalizazioaren arloan pertsonen eskubideen babesa bermatzeko.



Espainia Digitala 2026 Agendarekin bat etorritz, Arabako Foru Aldundiak eta Foru Sektore Publikoak kontuan hartuko dituzte eremu estrategiko horiek beren eraldaketa digitala bideratzeko.

3. Autonomia Erkidegoa:

Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez, badira eraldaketa digitalaz hazkunde ekonomiko eta sozialaren motor gisa hitz egiten duten funtsezko lerroak.

Euskadiko Eraldaketa Digitalerako Estrategiak (EEDE 2030) digitalizazio inklusiboa sustatzen du, pertsonak ardatz hartuta, enpresa sarearen lehiakortasuna eta sektore publikoaren efizientzia hobetzera bideratua. Hiru printzipio gidaritan oinarritzen da: jasangarritasuna, berrikuntza eta kohesio soziala.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzaren **Ardatz 2030 Plana** esparru estrategiko bat da, EAEn gobernantza publikoa eraldatzea eta sektore publikoko berrikuntza sustatzea helburu duena, balio publikoa sortzeko eta herritarren zein sektore publikoaren beraren premiei erantzuteko. Haren osagai nagusiak honako hauek dira:

- **Gobernantza digitala:** Kudeaketa publiko gardenagoa eta eskuragarriagoa sustatzea, teknologia digitalen erabileraren bidez.
- **Berrikuntza publikoa:** Sektore publikoaren, pribatuaren eta akademikoaren arteko lankidetzaren sustatzea, herritarren bizi kalitatea hobetuko duten proiektu berritzaileak bultzatzeko.
- **Jasangarritasuna eta efizientzia:** Baliabideak optimizatuko dituzten eta administrazio publikoan jardunbide jasangarriak sustatuko dituzten irtenbide digitalak integratzea.

Arabako Foru Aldundiak Ardatz 2030 Planaren helburu eta printzipioekin bat etorritz bideratuko du bere estrategia digitalaren plana, eta Arabako foru eremuan eraldaketa teknologikoaren agente sustatzaile gisa dagokion papera hartuko du bere gain. Lerrokatze horri esker, zerbitzu publikoen konektagarritasuna eta digitalizazioa indartu ahal izango dira, lurraldean berrikuntza eta ekintzailetza digitala sustatu, eta Arabako herritarrek ingurune digital seguru batean jarduteko beharrezkoak diren gaitasunak dituztela bermatu.

Zibersegurtasunaren alorrean, Euskadik **Cyberzaintza** agentzia du, euskal sektore publikoaren segurtasun digitala koordinatzen duen erakundea. Haren eginkizuna da informazio sistemen eta sare elektronikoen babesa bermatzea, bai eta administrazioen, herritarren eta enpresen artean zibersegurtasunaren kultura sustatzea ere. Ekimen horrekin batera, **Basque Artificial Intelligence Center (BAIC)** zentroak adimen artifiziala garatzea eta hartzea bultzatzen du Euskadin, talentuaren eta euskal ekosistemaren garapena sustatuz. Bestalde, **BAIDATA** datuaren subiranotasuna eta ekonomia garatzeko elkarteak da, datuak modu seguruan trukatzeko ekosistema bat sustatzen duena; **Basque Quantum (BasQ)** ekimenaren helburua, berriz, Euskadi teknologia kuantikoaren ikerketan, talentuan eta industrian nazioarteko polo bihurtzea da.

Ikuspegi integral hori erreferentzia izango da Arabako Foru Aldundiaren segurtasun digitaleko politikak diseinatzeko; horri esker, gorabeheren aurrean erantzuteko gaitasuna indartuko da, adimen artifizialaren



aplikazio etiko eta efizientea bultzatuko da, eta datuaren kudeaketa subirano eta segurua sustatuko da. Batera, jarduketa horiek lurraldearen erresilientzia teknologikoa sendotzen lagunduko dute.

Gainera, **Bizkaiko 2027ko Agenda Digitala** eta **Nafarroako Estrategia Digitala (2030)** hurbileko erreferentzia dira, administrazioaren digitalizazioaren, inklusioaren eta jasangarritasunaren arloan jardunbide egokiak inspiratzen dituztenak. Haien ardatzek (herritarrak eta bizi kalitatea, azpiegitura teknologikoak, gobernu digitala eta berrikuntza eta lehiakortasuna) erakundeen arteko lankidetzarako esparru bat eskaintzen dute, Arabako Foru Aldundiak bere lurralde testuingurura egokitu dezakeena.

Palanka teknologikoak

Palanka teknologikoak Estrategia Digitalaren Planaren helburuak gauzatzea ahalbidetzen duten elementu gaitzaileak dira. Haien bidez, teknologia erakundearen eta herritarren zerbitzura jartzen da, zerbitzu publikoak modernizatzea, barne prozedurak optimizatzea eta gaitasun digital berriak garatzea ahalbidetuz.

Eguno erronken ezaugarriak konplexutasun handia, zeharkako izaera eta teknologiarekiko mendekotasun sendoa dira, eta lankidetzak eta jarduketa eredu tradizionalak berriz pentsatzea eskatzen dute.

Egoera horretan, ezinbestekoa da berrikuntzarako, esperimentaziorako eta aurrera egiteko modu berriak sustatzea, teknologia eskaintzen dituen gaitasunak erabakitaz aprobetxatuz. Teknologia berriak eta eragin handikoak sartzeko aukera estrategikoa da lurraldearentzat, funtsezkoa haren lehiakortasuna eta egokitzeko gaitasuna indartzeko, eta ezin da aukera hori galdu.

Helburu horrekin, palanka teknologiko nagusiak identifikatu dira, Estrategia Digitalaren Plana garatzeko eta ezartzeko oinarri gisa balio dezaten, lurraldearen eraldaketa digitala modu koherente, jasangarri eta bere lehentasun estrategikoekin lerrokatuan bideratuz.



2. irudia. Palanka teknologikoen balio estrategikoaren mapa



Hasierako diagnostikoa

Testuingurua

Arabako Foru Aldundiak aurreko legeegintzaldietatik ari da Araba estrategiko, erreferente, gizartearen zein lurraldearen aldetik kohesionatu eta erresiliente baten alde egiten, parte hartzearen, hausnarketa bateratuaren eta baterako sorkuntzaren bitartez.

Berrikuntza sustatu du Arabako Lurraldean, politika publiko guztien printzipio inspiratzaile orokor gisa eta, bereziki, bereizteko lehenetsunezko eragile eta aldaketa motor gisa. Halaber, lehiakortasuna, nazioartekotzea eta garapen ekonomiko nahiz soziala berrikuntzari oso lotuta daude.

Eta Araban lidergo berritzailea lortze aldera, joera teknologiko berrietan aurrera egin eta haiek arakatzen joan da Arabako enpresa sarearen bitartez (fabrikazio gehigarria, adimen artifiziala, robotika eta automatizazioa, IoT, Big Data...), hezkuntza eta prestakuntza sistemak egoera berri horren eskakizunetara egokitzen aurrera eginez.

Egoera hori, sozialki, azken urteetan eraldaketa digitaleko prozedura sakon batean murgilduta dago; Arabako Foru Aldundian ez gaude horretatik kanpo, eta hainbat barne nahiz kanpo jarduketa egiten ari gara zerbitzu publikoetan aurrera egin eta haiek eboluzionatzeko, herritarren parte hartze irekiagoa eta aktiboagoa bermatuz, komunikazio kanalak optimizatuz eta lankidetzarako foroak zein espazioak ezarri, herritarren premietara gehiago hurbiltzea ahalbidetuko dutenak, zerbitzu publikoak birdiseinatu eta egokitze.

Era berean, gizartearen eraldaketa digitalak teknologiak eta datuak modu estrategikoan integratzea dakar, prozedurak modernizatzeko, efizientzia operatiboa hobetzeko eta zerbitzuak eskaintzeko. Funtsean, lerro hauetako jarduketak garatzeari dagokio:

- Zerbitzuen modernizazioa: herritarrek izapideak online egin ditzaten (hitzorduak, kudeaketak, informaziorako sarbidea) atariak, aplikazio mugikorak eta autozerbitzua eskaintzea.
- Efizientzia operatiboa: barne zereginak (langileen kudeaketa, erregistroa, etab.) digitalizatu eta automatizatzea, denborak eta kostuak murrizteko.
- Datuetan oinarritutako erabakiak hartzea: informazioa erabiltzea politika publiko eraginkorragoak eta pertsonalizatuagoak diseinatzeko.
- Integrazio teknologikoa: teknologiak erabiltzea, hala nola AA, Machine Learning, automatizazioa, datuen analisisa eta hodeiko konputazioa, prozedurak optimizatzeko eta gaitasun berriak sortzeko.
- Herritarren parte hartzea hobetzea: herritarrekin elkarrengaitzeko eta feedbacka jasotzeko kanal digitalak sortzea.
- Kultura aldaketa: erakundearen pentsamoldea egokitzea, digitala ohiko lan egiteko modu gisa hartzeko.



Laburbilduz, softwaretik edo digitalizaziotik harago doan prozedura integral bati buruz ari gara, administrazioaren funtzionatzeko eta herritarrekin harremanetan jartzeko modua eraldatzea bilatzen duena, XXI. mendean arinagoa eta eraginkorragoa izateko.

Aurreko diagnostikoa

1. Araban digitalizazioa bultzatzea

Arabako Foru Aldundiak urteak daramatza Arabako Lurraldean digitalizazio prozedurak bultzatzeko konpromisoa hartuta. Herritarrengana proiektatu den etengabeko aurrerapen baten bidez, gizartearen, administrazioaren eta enpresen eremutik.

Garatutako planen eta ekimenen bidez (**Helburu Plana**) eta aurreko legegintzaldietakoen bidez, aukera asko ikusi dira pertsona, enpresa eta erakunde publiko zein pribatuentzat, zerbitzu publiko gardenago eta parte hartzaileagoak eskainiz.

Baliabideak eta bitartekoak bideratu dira enpresek merkatuan duten posizioa hobetzeko, antolatze prozedura eta sistema efizienteagoen eta produktu zein zerbitzu jasangarriago eta berritzaileagoen bidez.

Aurrerapenak teknologia berrien integrazioan

Gauzak horrela, jarduketak hedatu dira hainbat eremu publiko eta pribatutan Arabak digitalizazio prozedurei zein lehiakortasunari/industria 4.0ari, E-administrazioari eta gizarte eremuari dagokienez duen arrakala digitala gainditzeko, pertsona guztiek aukera berberak izango dituztela bermatuz.

Hori guztia, herritarren gizarte eta lan arloko arrakala digitala identifikatu eta gainditzea ahalbidetuko duten erronkak planteatuz. Enpresetan eta administrazioan teknologia zein zerbitzu digitalak hedatzeko programak bultzatuz, eta industria 4.0aren ezarpenari helduz.

Digitalizazioa bultzatzea toki erakundeetan

Era berean, esan beharra dago azken urteotan Arabako hazkunde ekonomikoa eta enplegua Arabako toki erakundeentzako ARABA DIGITALA eta antzeko proiektuen garapenaren eta zerbitzu digitalen arreta gune bakarra sortzearen eskutik etorri dela. Horregatik, ahaleginak E-Administrazioa prozeduretan, informazio sistemetan eta lege betetzean ezartzen aurrera egitera bideratu dira.

Lankidetzako ekonomia eta administrazioaren arintasuna ardatz dituzten jarduketak, toki erakundeekin batera lan eginez barne eraginkortasuna hobetzeko berariazko zenbait neurriren bidez, herritarrei emandako erantzunean esleitutako erantzukizunak betetzeko; horrela, beste administrazio eta kanpo organismo batzuekin



datuak trukatzeko elkarreragingarritasunaren kudeaketa nabarmentzen da, nahi den kudeaketa hobetzea dakarrena.

Administrazioaren optimizazioa eta efizientzia

Era berean, **Araba Digitala Planaren** bidezko apustu seguruari esker, lankidetzak eta administrazioaren arintasunak administrazio prozedurak hobetzea ekarri du, Arabako Foru Aldundian bitartekoak hedatuz **Prozedura eta Zerbitzuen Katalogoak (PZK)** lege bete dezan egokitzeko, identifikatutako zerbitzu eta prozedura guztien kudeaketa automatizaturako diseinu ikuspegi batekin.

Jarduketak kudeaketaren eraginkortasunean irabaziak lortzera daude bideratuta, baina, oraingo honetan, hainbat neurri multzokatzen dituzte; adibidez, hau: antolaketa sistema berriak eta aplikazio informatiko berriak txertatzea, espedienteak, dirulaguntzak eta kontratuak zentralizatuta kudea daitezen eta herritarrekiko lotura zuzena aktibatu ahal izan dadin.

Arabako Ogasunaren kudeaketa jasangarria

Gauzak horrela, Arabako Ogasunaren konpromisoa fiskalitate berdearen ikuspegiaren alde eginez islatu da, Informazioa Berehala Emateko Sistema (BES) areagotu eta zabaltzeko proiektuen eta **TicketBAI** proiektuaren bidez.

Arabako Foru Aldundiak denboran zehar herritarrei eskaintzen dizkien zerbitzuen digitalizazioaren hobekuntzan aurrera egiteko hedatu dituen proiektu eta jarduketan multzo oso bat.

2. Arabako Foru Aldundiaren ibilbide orria (2023-2027)

Arabako Foru Aldundiaren 2023-2027 Legegintzaldi Planak ibilbide orri bat zehazten du lurraldearen lehiakortasuna indartzeko, administrazio publikoa modernizatzeko eta garapen jasangarriko eredu baterantz aurrera egiteko, berrikuntzan, digitalizazioan eta gobernantzaren hobekuntzan irmotasunez oinarrituz.

Ekonomia eta enpresa eremuan, Planak berrikuntza eta eraldaketa digitala bultzatzearen alde egiten du, erresilientzia eta lehiakortasun palanka gisa. Berrikuntzako ekosistema publiko-pribatu berriak sortzea sustatuko da, enpresen, *startup*en, agente teknologikoen eta administrazioaren beraren arteko lankidetzak bultzatuz. **Industria 4.0 – Araba 4.0** ekimenak, besteak beste, enpresa sarean kultura digitala sortzea, digitalizazio premia komunak identifikatzea eta lankidetzak proiektuen garapena erraztea ahalbidetuko du.

Aldi berean, Aldundiak aurrera egingo du berrikuntza irekiko, erosketa publiko berritzaileko eta **GovTech** ereduak hartzen, bere prozedura zein zerbitzuak modernizatzen eta berrikuntzaren agente traktore gisa jarduten.



Planak, era berean, **etorkizuneko sektore estrategiko eta teknologietarantz** dibertsifikatzea aurreikusten du, ahalmen berritzaile handia duten eta lurraldearen aukerekin lerrokatuta dauden eremuei arreta berezia eskainiz, hala nola **osasunari, ekonomia zirkularrari, bideojokoaren industriari edo kirolari**. Jarduketa horiek Arabako ekoizpen oinarria zabaltzea eta garapen ekonomikorako zein lurraldearen garapenerako aukera berriak sortzea ahalbidetuko dute.

Foru administrazioaren eraldaketa digitala legegintzaldiko ardatz nagusietako bat da. Arabako Foru Aldundiaren estrategia digitala prestatu eta hedatuko da, **zibersegurtasuna** lehentasunezko elementu gisa integratuz informazioaren babesa eta konfiantza digitala bermatzeko.

Administrazio prozeduren barne digitalizazioa bultzatuko da, efizientzia operatiboa, zerbitzuetarako eskuragarritasuna eta herritarrentzako arretaren kalitatea hobetuz, kanal digitalak eta aurrez aurreko arreta modernizatua uztartuz.

Esparru horretan, proiektu estrategikoak nabarmentzen dira, hala nola **Araba Digitala**, toki erakundearen digitalizazioa eta herritarrekin dituzten harremanak hobetzera bideratuta, plataforma komun, elkarlarreragingarri eta seguruaren bidez. Halaber, **GeoAraba** indartzen da datu espazialen azpiegitura horizontal gisa, elkarlarreragingarritasunean, gardentasunean eta lurralde informazioaren hedapenean aurrera eginez, eta 3D teknologiak zein Arabako Lurralde Historikoa biki digital baten garapena pixkanaka sartuz.

Planak **barne berrikuntza** eta baliabide publikoen optimizazioa ere bultzatzen ditu, administrazio prozedurak erraztuz eta estandarizatuz, sailen arteko koordinazioa hobetuz eta teknologia digitalak modu intentsiboan erabiliz. **Aurrekontu informazioarako eta datuen analisirako tresna aurreratuak** garatuko dira, erabakiak hartzea errazteko, gardentasuna indartzeko eta interes taldeen informazioa hobeto ulertzea ahalbidetzeko.

Jasangarritasunari dagokionez, Planak nekazaritza sektorearen modernizazioa indartzen du, **smart farming** teknologiak sartzea, ureztapenen digitalizazioa eta uraren erabilera efizientea baliabide estrategiko gisa sustatuz. Jarduketa horiek produktibitatea hobetzea, kostuak murriztea eta ingurumena gehiago errespetatuko duen nekazaritza eredu berritzaileago baterantz aurrera egiteko aukera emango dute.

Azkenik, Foru Ogasunaren eta ekonomia- eta finantza-kudeaketako sistemaren modernizazioari heltzen zaio, **zerga-prozeduren eraldaketa digitala** bultzatuz, zerga-datuen tratamendu eta ustiapenaren hobetuz, iruzurraren aurkako borrokaren indartuz eta finantza- zein aurrekontu-kudeaketa optimizatuz. Hori guztia, zerga-sistema efiziente, garden, bidezko eta jasagarri bat bermatzeko helburuarekin.



3. Digitalizazioaren esparru estrategikoaren ikuspegi partekatua

Enplegu, Merkataritza, Turismo eta Foru Administrazioaren Saileko Zerbitzu Orokorren Zuzendaritzak, Estrategia Digitalaren eta Informatikaren Zerbitzuak eta Antolaketa eta Berrikuntza Zerbitzuak lagunduta, barne-azterketa eta ikerketa prozedura bati ekin zion 2024an, eraldaketa digitalaren testuingurua eta inguruko administrazio publikoen estrategia digitalaren ibilbide orria hedatzeko ikuspegi guztiak ulertzeko, eta, horrela, datozen urteetarako Arabako Foru Aldundiaren eta Foru Sektore Publikoaren Estrategia Digitalaren Planaren ardatz nagusiak zirriboratu ahal izateko.

Halaber, Arabako Foru Aldundiaren hurbileko ingurunean estatuko zein autonomia-erkidegoko agenda digitalak hedatzeari esker, administrazio publiko bakoitzaren ibilbide orria ezagutu ahal izan da, eta, besteak beste, estatuko agendak Europako subiranotasun digitala bermatzeko eta horiek beren sektore nagusien bidez - datuen Europako subiranotasuna eta azpiegitura digital nahiz konektagarritasun seguru eta erresilienteen hedapena- lerrokatzea bultzatzeko duen konpromisoa ulertu ahal izan da.

Ikuspegi parte hartzailea Arabako Foru Aldundian

Egindako barne azterketa eta ikerketan lankidetzak ikuspegi parte hartzailea izatea, teknologia, kudeaketa eta antolaketa ikuspegitik osatutako pertsona talde baten bidez, funtsezkoa izan da beste administrazio publiko batzuen agenda digitalek azken urteetan bultzatu dituzten eraldaketa digitaleko proiektuen aurrerapen eta lerrokatze maila biltzeko eta aztertzeko.

Horregatik, kontuan hartu dira egin eta abian diren jarduketaren erreferentziak, ezarritako proiektuak eta Arabako Lurraldeko sozietate teknologikoen ezagutza partekatua; BAIC eta Cyberzaintza erakundeek, besteak beste, informazioa zabaltzea, biltzea eta oinarri gisa balio izatea ahalbidetu dute, erreferentziazko proiektu eta jarduketaren matrize hau prestatzeko:

ABIAN DIREN ERREFERENTZIAZKO PROIEKTUAK
ZERGA SISTEMA BERRIA EZARTZEA
TURISMO ADIMENDUNA (HELMUGEN PLATAFORMA ADIMENDUNA)
MENDEKOTASUNAREN BALORAZIO PROZEDURA GARATU ETA EZARTZEA (GOFE)
PLATAFORMA TEKNOLOGIKOAK ZEHAZTEA
PROZEDUREN MEATZARITZA (AGRI)
AUTOMATIZAZIOAK (RPA)
EKIPAMENDUA / INPRIMAGAILUAK BERRITZEA
LANKIDETZA TRESNAK EZARTZEA



PROZEDURA ETA ZERBITZUEN DIGITALIZAZIOA
SEGURTASUNA: SEN / DBEO / DPBDBLO / NIS2ra EGOKITZEA
INFORMAZIO SISTEMEN NORMALIZAZIOA
DATUAREN ETA AAREN ERABILERA KUDEATZEA
CLOUD ZERBITZUAK

Analisi eta ikerketa prozeduran, gure bazkide teknologiko Arabako Kalkulu Gunearen (AKGAB) zuzeneko parte hartzea ere izan dugu, inflexio puntu gisa Arabako Foru Aldundian ezartzeko pilotatze eta bideragarritasun azterketa gai izan diren eta diren palanka teknologikoak identifikatuz.

Gainera, Arabako Foru Aldundian digitalizazio proiektu batzuei segida ematen saiatu den neurrian, kontsultak egin zaizkie kanpoko erakundeei, bazkide teknologikoei eta aholkularitza espezializatuari, eta, horrela, Estrategia Digitalaren Plana prestatzeko prozeduraren bigarren azterketa fase bat egin da, barneko zein kanpoko talde misto baten bidez.

Halaber, Arabako Foru Aldundiaren Estrategia Digitalaren Plana (2026-2030) gainerako sailekin modu parte hartzaile eta koordinatuan diseinatu da; hainbat bilera eta dinamika koordinatu egin dira Planaren ardatz nagusien funtsezko ekintzak egituratzeko eta 2030era arteko denbora mugan bultzatu beharreko funtsezko ekintza nagusiak zirriborratzeko.

Gobernu kontseiluaren konpromisoa estrategia digitalarekin

Arabako Foru Aldundiaren eta Foru Sektore Publikoaren Estrategia Digitalaren Plana 2026-2030 denbora mugarako ezarritako erreferentzia esparrua da, eta gobernu taldeak Arabako lurraldean digitalizazioaren eta eraldaketa digitalaren aurrerapenarekin duen konpromisoa biltzen du, jarduketa bakoitza Arabako Foru Aldundiko sailen eta foru sektore publikoa osatzen duten erakundeen bidez modu koordinatuan bultzatu eta erakarriz.

Arabako Foru Aldundiaren eta Foru Sektore Publikoaren Estrategia Digitalaren Plana (2026-2030) Gobernu Kontseiluaren Erabakiaren bidez onesteak etapa berri baten hasiera dakar, digitalizazioari dagokionez aurreko aurrerapenei eta bitarteko zein baliabideen hedapenari jarraipena ematen diena, Arabako Foru Aldundiko sailen eta Arabako lurraldeko zein Foru Sektore Publikoko egitura publiko pribatua osatzen duten gizarte agenteen artean sinergiak ezartzeko, eraldaketa digitaleko etengabeko prozedura bat sortze aldera.



Eraldaketa digitalaren kulturarantz

Estrategia digitala Arabako Foru Aldundian eta Foru Sektore Publikoan hedatzea Estrategia Digitalaren Zuzendaritza Batzordearen bultzada eta laguntzaren bidez egingo da, zeina Zerbitzu Orokorren Zuzendaritzako, Estrategia Digitalaren eta Informatikaren Burutzako arduradunek osatzen baitute, Arabako Kalkulu Gunearekin koordinatuta.

Era berean, **Estrategia Digitalaren Plana** hedatu bitartean, Diputatu Nagusiaren Kabineteko Komunikazio Zuzendaritzaren bidez argitaratzeko eta informatzeko beharrezkoak diren jarduketak burutuko dira; hark Estrategia Digitalaren Planaren berri emango die ekosistema publiko pribatua osatzen duten interes taldeei, datozen urteetan (2026-2030) bultzatuko diren sektore nagusien berri modu koordinatuan emateko.

Horrekin guztiarekin, Arabako Foru Aldundiaren webgune korporatiboa sartzeko eta ondoren hedatzeko plataforma bihurtzen da, herritarrak ezagutzea eta inplikatzeko ahalbidetuko duena, egindako funtsezko ekintzen egoeraren eta bilakaeraren berri emanez, bai eta funtsezko ekintzak bultzatzeko egoeraren berri ere, Arabako Foru Aldundiko sailen arabera.

Denboran zehar jarduketa esanguratsuak garatuko dira AFAko sailietako zuzendaritzako arduradunei zuzenduta; horri esker, oinarriak ezarri ahal izango dira eta, Arabako Foru Aldundian lan egiten duten pertsonekin, informazioaren eta komunikazioaren bidez, eraldaketa digitalerantz bideratutako kudeaketa kultura bat eraiki ahal izango da, prestakuntza eta kontzientziazio prozeduren bidez, non paraleloan bat egiten baitute integrazio teknologikoko proiektuek eta AA ereduaren oinarritutako teknologiaren aldeko apustuak, Estrategia Digitalaren Planean jasotako funtsezko ekintzak pilotatuz.

Bultzada nabarmen horrek jarraitutasuna eman eta Foru Sektore Publikoak garatzen dituen jarduketan berri ere eman nahi du, eta, horrela, herritarrengana proiektatu Arabako lurraldeko eremu bakoitzean garatzen eta eragiten duten intereseko jarduketa zein proiektuen hedapena eta aurrerapena.



Estrategia Digitalaren Planaren oinarriak

Misioa, ikuspegia eta balioak

Misioa

“Arabako Foru Aldundiaren eta Foru Sektore Publikoaren eraldaketa digitala bultzatzea, arabar gizarteko herritar, enpresa eta erakundeen premiak aseko dituzten zerbitzu publiko arin, eskuragarri eta inklusiboak eskaintzeko”

- **Arinak:** Zerbitzu arinak dira herritarrei izapideak modu erraz eta azkarrean eta prozedura konplexuen beharrik gabe egiteko aukera ematen dietenak. Helburua da zerbitzu horiek modu intuitibo, eskuragarri eta efiziente erabilgarri egotea, horiek osatzeko behar den denbora gutxienera murriztuz. Proposatutako ekimenen artean administrazio prozedurak erraztea nabarmentzen da. Bereziki, kudeaketan zehar herritarrari lagunduko dioten laguntzaile birtualak sartzeari planteatzen da, urrats bakoitza erraztuz eta zalantzak denbora errealean argituz.
- **Eskuragarriak:** Zerbitzu eskuragarria da herritar guztiek modu erraz, seguru eta eraginkorrean erabil dezaketena, baliabide publiko, teknologiko edo kognitiboen eskuragarritasunean konfiantza sustatuz. Hala, Arabako Foru Aldundiak etengabeko erabilgarritasuna bermatuko du (24 x 7 x 365) ingurune fidagarrietan eta hainbat premiatara egokituta.
- **Inklusiboak:** Zerbitzu inklusiboa da herritarren aniztasunera egokitzen dena, pertsona guztiek modu bidezkoan sartzeari eta erabiltzeari bermatuz, haien gaitasunak edo baldintzak zein diren ere. Maltasunean eta kanal ororen erabileran oinarritzen da, gailu eta formatu eskuragarri ugari bidez elkarrengaita ahalbidetuz. Haren helburua da oztoporik gabeko esperientzia digital unibertsal bat eskaintzea, pertsona guztien parte hartze osoa ziurtatuko duena, desgaitasuna izan zeinez, zerbitzu publiko digitalak eskuratzeko aukera berdintasunean.



Ikuspegia

“Arabako Lurralde Historikoa gizarte teknologikoki aurreratu eta seguru bihurtzea, zerbitzu publikoetarako sarbide unibertsala duena eta berdintasun digitalera argi eta garbi bideratua”

- **Teknologikoki aurreratutako gizartea:** Herritarren, kudeaketa publikoaren eta garapen ekonomikoaren alderdi guztietan berrikuntza digitala txertatzen duena da. Horrek esan nahi du Arabako Lurralde Historikoko herritar, enpresa eta erakunde guztiek azpiegitura digital modernoak, gaitasun teknologikoen garapena eta ezagutza digitalerako bidezko sarbidea izango dituztela beren esku. Integrazio horri esker, lehiakortasuna bultzatu, balioa sortu eta bizi kalitatea hobetu daiteke. Gainera, egungo ingurune digitalaren erronkei erantzuten die eta eraldaketa inklusibo eta jasangarri baterako Europako zuzentarauekin bat dator.
- **Segurua:** Garrantzi berezia hartzen du gizarte seguru bihurtzeak; segurutzat hartzen da zerbitzu publikoei eusten dieten informazioaren eta sistema digitalen babes integrala bermatzen duena. Beraz, printzipio hau azpiegitura teknologiko sendoetan eta zibersegurtasunaren kudeaketan oinarritzen da, herritarren konfiantza arriskuan jarriko duten baimenik gabeko sarbideak edo erasoak prebenitzeko. Gainera, teknologia berrien (hala nola adimen artifizialaren) erabilera etiko eta arduratsua sustatzen dugu, Arabako lurralde osoan gobernantza digital garden eta fidagarria ziurtatuz.
- **Sarbide unibertsala:** Sarbide unibertsaleko gizartea da pertsona guztiek zerbitzu publiko digitalak modu erraz eta seguruan erabil ditzaketena, dagoen lekuan dagoela konexio mugarik gabe. Zerbitzuen elkarreragingarritasuna eta erabilgarritasuna bermatzen ditu, edozein lurraldetatik sartzeari ahalbidetuz, baita Europako eremuan ere. Beraz, teknologiaren erabileran konektagarritasun osoa eta berdintasun eraginkorra sustatuko dira, inor Arabako Lurralde Historikoko ekosistema digital publikotik kanpo geratuko ez dela ziurtatuz.
- **Berdintasun digitala:** Berdintasun digitala duen gizarte batean bermatzen da pertsona guztiek, haien generoa edo beste edozein egoera zein diren ere, aukera berdinak dauzkatela ingurune digitalera sartzeko, ikasteko eta ingurune horretaz baliatzeko. Teknologia ezagutza, gaitasun eta zerbitzuetarako bidezko sarbidea sustatzen da, teknologiaren erabileran arrakala digitalak eta estereotipoak ezabatuz. Arabako Foru Aldundiaren aldetik, kontzeptu hori gure ikuspegiaren sartzeari genero ikuspegia zerbitzu digital publikoen garapenean txertatzea dakar, arabar gizarte osoarentzat eraldaketa digital inklusibo eta bidezko bat bultzatuz.



Balioak

- Herritarrentzat pentsatua
- Segurtasuna
- Gardentasuna
- Inklusioa
- Balioa sortzea

Arabako Foru Aldundiaren eta Foru Sektore Publikoaren eraldaketa digitala lortzeko, plana erabaki, jarduketara lerro eta ekimen guztiak gidatuko dituen balio multzo batean oinarritzen da. Balio horiek digitalizazio prozedura modu arduratsuan eta efizientean burutuko dela bermatuko duten printzipioak dira.

- **Herritarrentzat pentsatua:** Arabako Foru Aldundiaren barruan egiten den ekintza bakoitzak funtsezko balio bat du, herritarrei erantzuna ematea hain zuzen ere; horregatik, dokumentu honetan jorratzen dugun Eraldaketa Digitalerako Estrategia osoaren balio nagusietako bat da. Funtsezkoa da pertsonak zerbitzu publikoen diseinuaren eta eskaintzaren erdigunean jartzea, eta balio horren bidez herritar, enpresa eta erakunde arabarren benetako premiei erantzungo dieten irtenbide digitalak bultzatzea, hurbiltasuna, erraztasuna eta erabilgarritasuna bermatuz. Balio hori betetzeko, entzuketara aktiboan, parte hartzean eta etengabeko hobekuntzan oinarritzen gara, administrazio enpatikoa eta proaktiboa sustatuz, herritarrentzat pentsatua, elkarrekin digital bakoitzean konfiantza eta gogobetetzea sortzeko gai dena.
- **Segurtasuna:** Segurtasuna digitalizazioaren funtsezko zutabea da eta garrantzi berezia hartzen du eremu publikoan; horregatik, konpromiso sendoa hartzen dugu datuen, sistemen eta herritarren konfiantzaren babesarekin. Horrek guztiak ingurune digital seguru, erresiliente eta etikoak bermatzea dakar, foru administrazioarekiko transakzioak eta komunikazioak informazioaren segurtasun berme osoarekin burutu daitezkeen. Arabako Foru Aldundian balio horren bidez egin beharreko bidea erakunde osoan zibersegurtasun kultura sustatzea da, jardunbide egokiak, prestakuntza eta erantzukizun partekatua zabalduz, eta teknologia berrien (hala nola adimen artifizialaren) erabilera Arabako Lurralde Historikoko eremuan herritarren, enpresen eta gainerako erakundearen funtsezko eskubideekiko errespetu, gardentasun eta gobernantza printzipioek gidatuko dutela ziurtatuz.
- **Gardentasuna:** Herritarrengandik hurbil dagoen administrazio ireki eta fidagarria eraikitzeke funtsezko balioa gardentasuna da. Gardentasun horrek informazio, prozedura eta erabaki publikoak argiak, ulergarriak eta erraz eskuratzeko modukoak izatea bermatzea dakar, kontu ematea eta parte hartze informatua sustatuz. Kontuan hartu behar da digitalizazioaren bultzadaz datuen irekiera, jarduketan trazabilitatea eta komunikazio proaktiboa sustatzen direla, herritarrek foru erakundeekiko duten konfiantza sendotuz. Horrenbestez, gardentasun digitala gobernu onaren zutabe gisa finkatzen da, kudeaketa publiko etikoagoa, efizienteagoa eta Arabako Lurralde Historikoko balio demokratikoekin loturatuagoa bultzatuz.



- **Inklusioa:** Inklusioa funtsezko balioa da, Arabako Foru Aldundiaren eraldaketa digitala pertsona guztientzat bidezko prozedura eskuragarria dela ziurtatzen duena, salbuespenik gabe. Horrek esan nahi du bermatu behar dela inor ez dela atzean geratuko zerbitzu publiko digitalak eskuratu, erabili eta haietaz baliatzerakoan, haien adina, generoa, gaitasuna, gaitasun digitalaren maila edo bizilekua zein diren ere. Balio horrek kanal orotako irtenbide eskuragarriak eta herritarren aniztasunera egokituak garatzea bultzatzen du, gizarte digitalean parte hartze osoa eta aktiboa sustatuz. Inklusio digitala, beraz, aukera berdintasunaren, gizarte kohesioaren eta aurrerapen partekatuen motor bihurtzen da Arabako Lurralde Historiko osoan.
- **Balioa sortzea:** Balioa sortzeak zerbitzu publikoen efizientzia, kalitatea eta eragina hobetuko dituzten emaitza zehatz eta neurgarriak lortzera bideratzen du Estrategia Digitalaren Plana. Balio horrek teknologiaren erabilera adimentsua bultzatzea bilatzen du baliabideak optimizatzeko, prozedurak errazteko eta lurraldeko herritar, enpresa eta erakundeei benetako onurak ekarriko dizkieten irtenbideak eskaintzeko. Horrek guztiak eraginkortasunean, efizientzian, jasangarritasunean eta berrikuntzan oinarritutako kudeaketa publikoa dakar, non ekimen digital bakoitzak Arabako Lurralde Historikoaren gizarte eta ekonomia aurrerapenari lagunduko dion.

Balio horiek eraldaketa digitalerako planaren funtsa definitzeaz gain, gidari estrategiko gisa jarduten dute etorkizuneko jarduketa guztietarako.



Helburuak

Plan honek lau helburu orokor izango ditu oinarri:

1. **Administrazio efizientzia handitzea:** barne digitalizazioa optimizatzea administrazioa errazteko eredu baterantz, kudeatzen diren prozesuak eta prozedurak izapidetzeko epeak arintzeko.
2. **Zerbitzu teknologiko jasangarriak sustatu eta bultzatzea:** gizarte ekosistemako eragile guztien (enpresak, administrazio publikoak eta herritarrak) jardueren kudeaketa erraztea, haien gaitasun digitalak garatzen, garapen jasangarriko helburuak lortzen lagunduz eta konektagarritasuna sendotuz, bitartekoak eta baliabide ekonomikoak hedatuz.
3. **Gardentasuna eta herritarren parte hartzea sustatzea:** Herritarren elkarreraginerako, parte hartzerako eta informazio publikoaren kudeaketarako eredu dinamiko bat ezartzea e-Government administrazioen arteko konexio sare baten bidez, gobernu irekiago eta kolaboratiboago bat sustatuko duena.
4. **Herritarren esperientzia digitala hobetzea:** Arabar gizarteko herritar, enpresa eta erakundeekiko esperientzia eta komunikazioa optimizatzea, kanal eta zerbitzu arin, eskuragarri eta intuitiboak eskura jarritz.



3. irudia. Estrategia Digitalaren Planaren helburu estrategikoak



Arabako Foru Aldundiaren eta Foru Sektore Publikoaren Estrategia Digitalaren Plana (2026-2030)

Hedapen fasea da diagnostikoaren emaitzak erakundean eta herritarrengan benetako eragina sortzera bideratutako estrategia operatibo eta gauzagarri bihurtzen diren unea. Fase horrek Estrategia Digitalaren Planaren ikuspegia eta helburuak zenbait ardatz estrategiko eta jarduketatan egituratzen ditu.



4. irudia. Ardatz eta jarduketa lerro estrategikoak



1. ardatza: Zibersegurtasuna

“Datuak, zerbitzuak eta azpiegiturak babestuko dituen ingurune digital segurua eta fidagarria bermatzea, erakundearen erresilientzia eta herritarren konfiantza sendotuz”

Zibersegurtasuna funtsezko zutabe bihurtu da administrazio publikoko epe ertain eta luzerako edozein estrategia digitalen barruan. Informazio sistemekiko mendekotasun gero eta handiagoak eta herritarrei zerbitzu digitalak eskaini beharrak baldintzatutako testuinguruan, datuen eta azpiegitura teknologikoen babesa bermatzea ezinbestekoa da. Horregatik, ardatz estrategikoetako batek **segurtasun politika** argiak, eguneratuak eta arau esparruekin lerrotatuak ezartzean jarri behar du arreta, kontrol eta babes oinarri sendo bat finkatzea ahalbidetzeko.

Halaber, zibersegurtasunak prebentzio neurriak ez ezik, gorabeheren **aurreko prebentzio eta erantzun** gaitasuna ere eskatzen du. Horrek esan nahi du balizko mehatxuei aurre hartzea, sistemen erresilientzia indartzea eta eraso edo ahulezien aurrean azkar erantzuteko protokolo eraginkorrak izatea.

Era berean, ez dago segurtasun ikuspegi osorik giza faktoreari heldu gabe. Langile publikoak zibersegurtasunaren arloan kontzientziaztea eta trebatzea funtsezkoa da arriskuak murrizteko, jardunbide egokiak sustatzeko eta segurtasun digitalera bideratutako antolaketa kultura eraikitzeko. Hala, administrazioa fidagarriagoa, seguruagoa eta denboran jasagarriagoa izango den ingurune digital baterantz doa.

Helburu horiek lortzeko, jarduketa lerro hauek ezartzen dira:

- 1L: Segurtasun politikak ezartzea
- 2L: Prebentzioa eta erantzuna
- 3L: Zibersegurtasuneko kontzientziazioa eta trebakuntza

Politika sendoak, teknologia aurreratuak, etengabeko prestakuntza eta zibersegurtasun kultura ezartzeak administrazioa babestiaz gain, herritarren gogobetetze eta parte hartze handiagoari lagunduko dio.



1A.1L: Segurtasun politikak ezartzea

“Arabako Foru Aldundiaren datu eta sistemen babes integrala bermatuko duen segurtasun politiken esparru sendo eta komun bat ezartzea”

Jarduketa lerro honen helburua da Arabako Foru Aldundiak eta Foru Sektore Publikoak kudeatutako sistema, komunikazio eta datuen babesa, konfidentzialtasuna, osotasuna, erabilgarritasuna eta trazabilitatea bermatuko duten informazioaren **segurtasun politika, arau eta prozeduren esparru integral** bat finkatzea.

Haren xedea da erakundeari zeharkako segurtasun kultura bat ematea, non area, zerbitzu eta hornitzaile guztiek irizpide eta estandarren multzo beraren arabera jardungo duten. Hala, erakundeek azpiegitura teknologiko, zerbitzu digital eta datu guztiak mehatxu edo ahultasunen aurrean babestuta egotea ziurtatzen da, Segurtasun Eskema Nazionalaren, DBEOren, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2023/2841 Erregelamenduaren, Europako Cybersecurity Act-aren eta EBko “Hamarkada Digitala 2030” programaren zuzentzarauen eskakizunak betez.

Onurak

Herritarrenganako eragina

- Herritarrek foru zerbitzu digitaletan duten konfiantza handitzea.
- Erakundeek informazioaren eta herritarren datu pertsonalen babes integrala.

Barne eragina

- Erakunde sare, sistema eta datuetako arriskuak eta ahultasunak murriztea, arauen desbideratzeak eta arrakalak minimizatzeko.
- Arabako Foru Aldundi osoan eta Foru Sektore Publikoan segurtasuneko arau eta operazio estandarrak homologatzea, barne zein kanpo auditorien aurrean adostasun egoera orokorra hobetuz.

Helburu espezifikoak

- Sare, sistema eta datu publikoen segurtasuna, osotasuna eta konfidentzialtasuna bermatzea.
- Aldundi osoari eta Foru Sektore Publikoari aplikatuko zaion segurtasun politiken erakunde esparru bat ezartzea, Segurtasun Eskema Nazionala, ISO 27001 eta NIS2 esparruekin lerrokatuta, besteak beste, honako hauek ziurtatzeko:



- Erakundeen datuak modu seguruan biltegiratzeko, anonimizatzeko eta arriskuak ebaluatzeko estandarrak zein metodologiak integratzea.
- Informazioa bai igarotzean bai atsedenean babestea, zifratze estandarren, sarbide kontrolaren eta arriskuen ebaluazioaren bidez.
- Babes digitaleko eta erresilientziako neurriak sustatzea, Europako azpiegitura seguruaren helburuekin eta 2030eko Hamarkada Digitalarekin bat etorritz.

Funtsezko ekintzak

- Segurtasun politikak berrikustea, haiek garatu eta eboluzionatzeko, "Araudia Segurtasun Eskema Nazionalera egokitzea" proiektuaren barruan.
- Administrazio elektronikoaren zerbitzuetan Segurtasun Eskema Nazionalaren ziurtagiria lortzea eta hari eustea, politikak aldizka auditatuz eta berrikusiz.
- Dagoen dokumentazioa osorik berrikustea, indarrean dauden araudietara egokitzeko maila ebaluatzeko. Azterketa horrek hobetzeko aukerak eta arrakalak identifikatzeko bidea emango du.
- Datu pertsonalak babesteko eta pribatutasunerako politikak diseinutik bertatik eta lehenetsita ezartzea, etorkizuneko zuzenketa kostuak murrizteko eta errepikatzen diren ahultasunak saihesteko.
- Kontratazio teknologikoko agerietan zibersegurtasun eta pribatutasun eskakizunak sartzea.
- Segurtasuneko agente koadroa garatzea, Segurtasun Eskema Nazionalaren adierazle nagusiekin.



1A.2L. Prebentzioa eta erantzuna

“Zibermehatxuen aurreko prebentzio eta erantzun gaitasuna sendotzea, zerbitzu publiko digitalen jarraitutasuna eta babesa ziurtatzeko”

Jarduketa lerro honen helburua da Arabako Foru Aldundiak zibersegurtasun mehatxu, ahultasun eta gorabeheren aurrean duen prebentzio eta erantzun gaitasuna sendotzea, zerbitzu publiko digitalen jarraitutasuna, informazioaren konfidentzialtasuna eta herritarren datu pertsonalen babesa bermatuz.

Prebentzioan, hautemate goiztiarrean, erantzun koordinatuan eta berreskuratze arinean oinarritutako ikuspegi integral baten bidez, ingurune digital seguru, erresiliente eta konfiantzazkoa eraiki nahi da, Segurtasun Eskema Nazionalarekin, NIS2 Zuzentarauarekin eta Zibersegurtasunaren Euskal Estrategiarekin lerrokatuta.

Lerro honek Cyberzaintzarekin —segurtasun politiketan erreferentziatzeko zentro gisa— duen lankidetzaren bidez, operatiboa indartzen du, garaiz ohartarazteko, etengabe monitorizatzeko eta gertakariak modu koordinatuan kudeatzeko kanal eraginkorrak ezarritik.

Onurak

Herritarrenganako eragina

- Herritarrek aldundiaren zerbitzu elektronikoetan duten konfiantza bermatzea, sistema eta datuen babes integralaren bidez.
- Datu pertsonalen eta pribatutasunaren babes eraginkorra.

Barne eragina

- Segurtasun gorabeheren eta arrakalen eragina murriztea.
- Azpiegitura sendoagoa izatea, balizko eraso bideak murrizteko eta erresilientzia tekniko hobetzeko.

Helburu espezifikoak

- Pertsonen intimitatea babestea haien datuen erabilera etikoa sustatuz, segurtasun politiken, anonimizazioaren eta logen auditorien bidez.
- Informazioaren osotasuna ziurtatzea babeskopia zifratu eta egiaztatuen bidez, datuak eraginik gabe edo gutxienezko eraginarekin berreskuratzea ahalbidetzeko.
- Zerbitzu kritikoetarako azpiegitura teknologiko seguru, aurreratu eta fidagarriak garatzea.



- Ahultasunak hautemateko mekanismoak eta barneratze probak ezartzea.

Funtsezko ekintzak

- Zibersegurtasun gorabeheren aurreko prebentzio eta erantzunerako foru plana prestatzea, erresilientzia handitzeko, zerbitzuaren jarraitutasun eta ezbeharren aurreko berreskuratze neurriak (DRP) ezarriz.
- Segurtasun Gertaeren eta Informazioaren Kudeaketa (SIEM) zentralizatua sendotzea, gertaerak elkarri lotzeko eta alerta goiztiarrak sortzeko.
- Sartzeko kontrolak sendotzea,
 - identitatea eta sarbidea kudeatzeko sistema korporatibo bat (IAM) ezarriz,
 - sistema kritikoetarako eta hodeiko zerbitzueterako sarbide pribilegiatua kontrolatu eta kudeatzeko sistema (PAM) sartuz,
 - erakunde barruko eta urruneko sarbideetarako Faktore Anitzeko Autentifikazioa (MFA) mantenduz.
- Elkarriketa laguntzaileetan eta automatizazio plataformetan anonimizazio mekanismoak eta logen erregistro seguruak ezartzea.
- Babeskopien, zifratzearen eta leheneratzearen aldizkako balioztatzearen politikak eboluzionatzea.
- Sareen segmentazio neurriak eta azpiegitura kritikoen gogortzea etengabe sendotzea.
- Aktiboen inbentarioa automatizatzea Konfigurazioaren Kudeaketarako datu base bat ezarriz; sistema horrek azpiegituraren informazioa eta zerbitzuaren kudeaketa erregistratzea ahalbidetzen du.
- Sistemetan sarbide kontrol zorrotzak, etengabeko monitorizazioa, datu sentikorren zifratzea, aldizkako auditoriak eta zibererasoen aurreko erresistentzia probak sartzeko, ahultasunak identifikatu eta zuzentzeko.
- Intrusioak detektatzeko tresnak (IDS) eta gorabeheren erantzuteko sistemak (IR) ezartzea, zibererasoak denbora errealean identifikatu eta indargabetzea ahalbidetzeko.
- Ziberkrisien aurreko simulazio eta erantzun ariketak egitea (urteroko simulakroak), langileak zibersegurtasun gorabeheren aurreko erantzunean prestatzeko eta informazioaren babesean duten eginkizuna ulertzen laguntzeko.
- Cyberzaintzarekin batera prebentzio kanpaina bateratuetan parte hartzea.



1A.3L. Zibersegurtasuneko kontzientziazioa eta trebakuntza

“Zibermehatxuen aurreko prebentzio eta erantzun gaitasuna sendotzea, zerbitzu publiko digitalen jarraitutasuna eta babesa ziurtatzeko”

Jarduketa lerro honen helburua da Foru Aldundiaren barruan zibersegurtasun arloko giza eta erakunde gaitasunak sendotzea. Haren xedea da zibersegurtasun kultura integral eta jasangarri bat finkatzea, barne eskumenak etengabe garatuz, arrisku digitalei modu egokian aurre hartu, hauteman eta erantzun ahal izateko.

Horretarako, langile publikoen ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak hobetzera bideratutako prestakuntza, dibulgazio eta entrenamendu praktikoko ekintza egituratuaren multzo bat antolatzen da. Jarduketa horiek hainbat mailatan hedatzen dira: prestakuntza tekniko espezializatua IKT eta segurtasuneko langileentzat, eremu hauek barne hartuta, besteak beste: Segurtasun Eskema Nazionala, NIS2 Zuzentaraua, gorabeheren hautematea eta kudeaketa edo auzi analisia; kontzientziazio programa orokorrak Arabako Foru Aldundiko langile guztiei zuzenduak informazioaren erabilera segurua sustatzeko; eta zuzendaritzako prestakuntza, arriskuaren kudeaketara, erabakiak informatuta hartzea eta arauak betetzera bideratua.

Hala, Foru Aldundiak zibersegurtasunaren ezagutzan erakunde erreferente eta dinamizatzaile gisa duen eginkizuna indartuko du, konfiantza digitala sustatuz eta zerbitzu publiko elektronikoaren erabilera seguru eta erresilientea bermatuz.

Onurak

Barne eragina

- Arabako Foru Aldundi osoan eta Foru Sektore Publikoan zeharkako segurtasun kultura bat sortzea.
- Benetako krisien aurrean prestakuntza handiagoa izatea, erantzun, koordinazio eta komunikazio gaitasuna sendotuta.
- Arabako Foru Aldundiko funtzionario publikoen heldutasun maila eta konfiantza digitala handitzea.

Helburu espezifikoak

- Zibersegurtasuneko jardunbide egokienei buruzko etengabeko prestakuntza plan bat zehaztu eta garatzea, foru profil profesional bakoitzera egokitua, foru langileen zibersegurtasun kultura eta gaitasunak sustatzeko.
- Inklusio digital segurua sustatzea, zerbitzu publiko elektronikoekiko konfiantza bultzatuz.



Funtsezko ekintzak

- Arabako Foru Aldundiko eta Foru Sektore Publikoko funtzionario publikoentzako Zibersegurtasuneko kontzientziazio eta trebakuntza plan bat idaztea, honako hauek bilduko dituenak:
 - Zibersegurtasuneko aldizkako kontzientziazio kanpainen programa bat, phishing erasoen simulakroak eta balizko mehatxuak hautemateko zein haiei erantzuteko trebakuntza emango duten erantzun ariketak barne hartuko dituenak.
 - Berariazko prestakuntza aurreratua talde tekniko eta zuzendarientzat: SOC, auzitegi analisia, gertakarien kudeaketa, cloud security.
 - Harrera eta prestakuntza programak Arabako Foru Aldundiko funtzionario sartu berrientzat eta barne promozioentzat.
- Arabako Foru Aldundiaren zibersegurtasun heldutasun maila eta kultura aldizka ebaluatzea.



2. ardatza: Datuaren eta AAren Gobernantza

“Datura eta adimen artifiziala aktibo estrategiko gisa kudeatzea erabakiak hobeto hartzeko, eskubideak bermatzeko eta balio publikoa sortzeko”

Datuaren eta adimen artifizialaren gobernantza estrategia digitalaren planaren barruko ardatz estrategiko garrantzitsuenetako bat da. Erabakiak hartzea eta zerbitzuak eskaintzea gero eta gehiago informazioaren mende dauden ingurunean, funtsezkoa da datuak oinarritzko aktibo publiko gisa kudeatzea ahalbidetuko duen ikuspegi sendo eta koordinatua ezartzea.

Esparru horretan, **datuen gobernantzarako erakunde esparru bat ezarri behar da**, DAMA metodologian oinarritua; izan ere, metodologia horrek eredu egituratu bat eskaintzen du datuaren bizi zikloaren kudeaketaren inguruan rolak, prozedurak eta politikak antolatzeko. Esparru horrek **datuen kalitatea, osotasuna eta erabilgarritasuna bermatzeko aukera eman behar du**, erabilitako informazioa fidagarria, koherentea eta erakunde osoarentzat eskuragarria dela ziurtatuz.

Era berean, datuen gobernantzak **arauak betetzen direla eta informazioa babesten dela ziurtatu behar du**, batez ere pribatutasunari, segurtasunari eta datu pertsonalei buruz indarrean dagoen araudiari dagokionez. Horretarako, funtsezkoa da datu **arkitektura elkarrengarri eta seguru bat hedatzea**, sistemen, sailen eta administrazioen arteko trukea erraztuko duena, kontrol eta zibersegurtasun estandar altuei eutsirik.

Aldi berean, administrazio adimentsuago baterantz eboluzionatzeko, adimen artifizialaren gobernantza txertatu behar da, Adimen **Artifizialaren Europako Erregelamenduarekin (AI Act)** lerrokatuta; erregelamendu horrek gardentasun, erantzukizun eta arriskuen kudeaketarako printzipioak ezartzen ditu AA sistemen erabileran. Horrek algoritmoetan oinarritutako irtenbideen garapen etiko eta segurua ahalbidetuko du, alderdikeriak saihestuz eta konfiantza publikoa ziurtatuz.

Azkenik, estrategiak datuaren **kultura eta ezagutzaren kudeaketa bultzatu behar ditu** erakundearen barruan, barne gaitasunak eta informazioaren erabilera arduratsua sustatuz. Hori guztia **datutik abiatuta balio publikoa sortzera** bideratu behar da, politikak, zerbitzuak eta herritarren esperientzia hobetuz, ebidentzietan eta teknologia fidagarrietan oinarritutako erabakien bidez.

Helburu hori lortzeko, honako jarduketa lerro hauek egituratzen dira:

- 1L: Datuen gobernantzarako erakunde esparru bat ezartzea.
- 2L: Datuen kudeaketa eta truke gardena.
- 3L: “Data-driven” kultura bultzatzea.
- 4L: Zerbitzu publikoak eta barne digitalizazioa.



- 5L: AAren gobernantza.

Jarraian, xehetasunez deskribatuko da Arabako Foru Aldundiak nola helduko dion jarduketa lerro horietako bakoitzari, haietako bakoitzean aurreikusitako helburuak lortzeko, aldundiari ahalik eta balio eta onura gehien emateko eta herritarrei zerbitzu hobea eskaintzeko moduan.



2A.1L. Datuen gobernantzarako erakunde esparru bat ezartzea

“Erakunde osoan datuaren kalitatea, segurtasuna eta erabilera etikoa bermatuko dituen esparru sendo eta zeharkakoa eraikitzea”

Administrazioaren barruan datuaren gobernantza finkatuko dela bermatzeko helburuarekin, Estrategia Digitalaren eta Informatikaren Zerbitzuak eraldaketa digitala egituratuko duen datuaren erakunde esparru bat ezartzeko lan egingo du.

Datuen gobernantzarako erakunde esparrua da erakunde osoan datuen kudeaketa eraginkorra, kalitatea, segurtasuna eta arauak betetzen direla bermatzeko diseinatutako politika, prozedura eta arau multzo egituratu bat. Esparru horrek datuak beren bizi ziklo osoan zehar —bilketatik hasi eta aztertu zein biltegiratu arte— gainbegiratzeko eta kontrolatzeko beharrezkoak diren eginkizunak, erantzukizunak eta prozesuak zehazten ditu. Funtsean, datuak zehatzak, koherenteak, eskuragarriak eta baimenik gabeko sarbideetatik edo erabilera okerretatik babestuta daudela bermatzen duen datu gobernantzarako esparru bat da.

Esparru horrek datuetan oinarritutako kultura bat ezartzea eta datuaren fidagarritasuna zein erabilera etikoa ziurtatzea ahalbidetuko du.

Onurak

Herritarrenganako eragina

- Datuaren kalitatea, fidagarritasuna eta berrerabilpena areagotzea, herritarrei begira zerbitzu eraginkorragoak eskaintzeko.

Barne eragina

- Erakunde osoan datuari buruzko jardunbideak eta irizpideak estandarizatzea.
- Barne koordinazioa hobetzea, datuaren kudeaketan rolak eta haien erantzukizunak argitzeari esker.
- Segurtasuna eta araudia betetzea indartzea datuaren erabileran eta bizi zikloan.

Helburu espezifikoak

- Arabako Foru Aldundiarentzat datuen gobernantza estrategia eta eredua zehaztea.
- Datuen gobernantza esparrua administrazio prozeduretan eta Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologietan txertatzea.



- Datuen gobernantza estrategia subiranotasun digitalari eta datu publikoaren babesari buruzko estatu zein Europa mailako politikekin lerrokatzea.

Funtsezko ekintzak

- Arabako Foru Aldundiaren barruan datuen gobernantzarako koordinazio mekanismoak, erantzukizunak eta rolak zehaztu eta sortzea, antolaketa eredu baten bidez.
- Plangintza estrategiko bat ezartzea datuen gobernantza eta Arabako Foru Aldundiaren zerbitzu publikoen kudeaketa txertatzeko.
- Datuaren Arkitektura Korporatiboa zehaztu eta hedatzea, datuaren bizi zikloaren kudeaketa teknikoa homogeneizatu, egituratu eta normalizatu ahalbidetuko duena.
- Datuak kudeatzeko eta erabiltzeko politika korporatiboa idaztea (Segurtasun Eskema Nazionalarekin, Elkarrengarritasun Eskema Nazionalarekin eta Europako araudiarekin lerrokatuta).
- Erakundeekiko konfiantza sendotuko duten kalitate, etika, segurtasun eta berrerabilpen printzipioak ezartzea.
- Arkitektura mailan, onartzen den datuaren gobernantza ereduan aplikatu beharreko tresna teknologikoen diagnostikoa eta ebaluazioa egitea.
- Ebaluazio eredu korporatibo bat sortzea erakundea zein heldutasun mailatan dagoen neurtzeko eta arau zein operazio arrakalak hautemateko, jardunbide egokiak eta esparru ezagunak erreferentziazat hartuta, adibidez, DAMA.
- Subiranotasun digitaleko prozedurak aplikatzea, datuen sailkapena eta egoitza, beharrezkoa denean Europako eskualde edo hornitzaileak erabiltzea, eta informazio publikoaren kontrola eta babesa ziurtatuko dituzten sarbide eta trazabilitate politikak ezartzea bermatuko dutenak.



2A.2L: Datuen kudeaketa eta truke gardena

“Administrazio ireki eta gardena sustatzea, gizartearentzat eskuragarri, fidagarri eta berrerabilgarri egongo diren datuen bidez”

“Datuen kudeaketa eta truke gardena” lerroak administrazio publikoko eredu bat bultzatzen du, non datuak baliabide estrategiko gisa kudeatzen diren eta herritarren eskura jartzen diren, argitasun eta erantzukizun irizpideekin. Haren xedea da informazio publikoa eskuragarria, ulergarria eta fidagarria dela bermatzea, datuen argitalpen proaktiboa sustatuz eta kontu ematea indartuz. Ikuspegi horrek erakunde osoan datuak modu homogeneoan sortu, mantendu eta zabalduko direla ziurtatuko duten printzipio komunak, erreferentzia esparruak eta antolaketa jarraibideak zehaztea barne hartzen du.

Gardentasunaren eta informazio publikoa eskuragarri egotearen ikuspegitik, lerro horrek erabilera irekiagoa eta herritarren beharretara bideratuagoa errazten du, datuak berrerabiltzeko moduko formatuetan eskuragarri egotea bultzatuz eta open data ekosistema sustatuz. Horrekin, herritarrek, enpresek eta gizarte eragileek datu horiek berrerabiltzea sustatzen da. Oro har, lerro horrek administrazio irekiago, eraginkorrago eta fidagarriago bat lortzen laguntzen du, kalitatezko informazio publikoa eskaintzen duena eta Arabako gizarteari datu fluxu garden eta etengabea bermatzen diona.

Onurak

Herritarrenganako eragina

- Herritarren konfiantza handitzea informazio publikoaren kudeaketa garden eta seguruaren bidez.
- Balio publikoa bultzatzea herritarrek, enpresek eta gizarte eragileek datu irekiak berrerabiltzeari esker.

Barne eragina

- Sistema publikoen arteko komunikazioaren efizientzia hobetzea, elkarrengarritasunari dagokionez indarrean dagoen araudia betez.

Helburu espezifikoak

- Informazio publikorako sarbide segurua hobetzea herritarrentzat, enpresentzat eta beste administrazio batzuentzat baliagarriak, eguneratuak eta irekiak izango diren datuak argitaratuz.
- Herritarrek emandako datuen erabileran trazabilitatea, auditoria eta kontu ematea ziurtatzea, baita datuen kalitatea eta egiazkotasuna ere, haiek argitaratu edo ustiari aurretik.



- Herritarrei beren informazioa modu argi, seguru eta arinean kontsultatu zein kudeatzeko bidea emango dieten zerbitzu digitalak garatzea.

Funtsezko ekintzak

- Datu partekatuetan oinarritutako zerbitzu digital berrerabilgarriak diseinatzeko erreferentziatzko esparru komun bat ezartzea, zerbitzu korporatiboen eta estandar irekien erabilera sustatuz, bikoiztasun teknologiko eta administratiboak murrizteko.
- Datuen erabileraren auditoria, trazabilitate eta kontu emate mekanismoak garatzea; horrek, besteak beste, honako ekintza hauek eskatzen ditu:
 - Arabako Foru Aldundian dauden sistema, datu iturri eta zerbitzu elkarreragingarrien inbentario bateratua egitea, datuaren erabilgarritasuna, kalitatea eta trazabilitatea bermatzeko.
 - Arabako Foru Aldundiaren funtsezko prozesuetan zehaztutako arauetako datu kritikoaren erregistroa egitea.
 - Fidagarritasuna ziurtatzeko, datuaren kalitatea, katalogazioa, metadatuak eta trazabilitatea kontrolatzeko guneak ezartzea.
- Arabako Foru Aldundiaren eta gainerako administrazio publikoen arteko informazio truke prozedura optimizatzea, NISAE bidezko informazio trukea administratiboki errazteko jarraibideak zehaztuz.
- Anonimizaziorako, moztarazteko eta probako datuetarako tresna aurreratuak hedatzea.
- Open data eta gardentasun aktiboko ekimenak bultzatzea.



2A.3L: “Data-driven” kultura bultzatzea

“Datuetan oinarritutako kultura finkatzea, erabaki informatuak, berritzaileak eta herritarrenganako eraginera bideratuak ahalbidetuko dituenak”

Arabako Foru Aldundiaren barruan Data-driven ikuspegia ezartzen da, ekintza estrategikoak eta operatiboak datu fidagarri, eguneratu eta garrantzitsuetatik abiatuta zehaztu ahal izateko; horrela, AAK optimizatutako erakunde kultura bat bultzatuko da, berrikuntzara eta herritarrenganako eraginera bideratua.

Erabakiak Arabako Foru Aldundiko sistemetatik datorren informazioaren azterketa kuantitatibo eta kualitatiboan oinarrituko dira, hala nola administrazio erregistroetan, plataforma digitaletan, sareko zerbitzuetan edo herritarrei egindako inkestetan. Horrek politika, zerbitzu eta prozesu digitalak diseinatu, ezarri eta ebaluatzeko bidea emango du.

Onurak

Herritarrenganako eragina

- Herritarren beharrei erantzutea datuen azterketaren bidez, joerak identifikatzeko eta baliabideak modu efizientean bideratzeko.

Barne eragina

- Ebidentzietan oinarritutako erabaki publikoak hartzea optimizatzea.

Helburu espezifikoak

- Arabako Foru Aldundian datuetan oinarritutako erakunde kultura bat ezartzea, sentsibilizazioaren, prestakuntzaren eta datuak kudeatzeko batzorde bat eratzearen bidez.
- Arabako herritarrei ematen zaien erantzunaren pertsonalizazioa eta efizientzia indartzea analitika aurreratuaren bidez.
- Erabaki maila guztietan datuen erabilera sistematikoa sustatzea.

Funtsezko ekintzak

- Datuak denbora errealean zentralizatu eta aztertzea ahalbidetuko duten analitika aurreratuak tresna teknologikoak ezartzea, informazioaren kalitatea hobetuz.



- Datuaren erabilera etiko eta arduratsua txertatzea aldundiaren administrazio prozeduretan erabakiak hartzeari begira.
- Erabaki informatuak eta objektiboak hartzea sustatuko duten politikak eta prozedurak ezartzea.
- Datuak aztertzeko, ebidentzietan oinarritutako erabakiak bultzatzeko eta larrialdietarako abisu automatikoak sortzeko AA algoritmoak txertatzea.
- Ezarritako politiken eragina eta efizientzia neurtzeko eredu analitiko eta prediktiboak, aginte koadroak eta adierazleak garatzea.
- Datuetan oinarritutako alerta goiztiarreko sistemak garatzea, gizarte edo ekonomia arazoen plangintza eta prebentzioa hobetzeko.



2A.4L: Zerbitzu publikoak eta barne digitalizazioa

“Automatizazio adimenduna bultzatzea barne efizientzia hobetzeko eta zerbitzu publiko proaktiboagoak eta pertsonalizatuagoak eskaintzeko”

Estrategia Digitalaren eta Informatikaren Zerbitzuak automatizazio adimenduna bultzatuko du, administrazioa modernizatzeko eta herritarren esperientzia hobetzeko palanka gisa, izapidetze, kontrol, euskarri eta jendearentzako arretarako robotizazio eta proiektu automatizazioko teknologia berriak txertatuz.

Jarduketa lerro honen ondorioetarako, automatizazio adimenduntzat hartzen da automatizazio teknologiak, analitika aurreratua, adimen artifiziala eta ikaskuntza automatikoa modu konbinatuan aplikatzea, eginkizunak edo prozesuak modu autonomo, moldagarri eta gainbegiratuan burutzeko.

Automatizazio tradizionalak ez bezala, automatizazio adimendunak datuetatik ikasten du, arau zein patroieta oinarritutako erabakiak hartzen ditu eta era dinamikoan txertatzen da sistema korporatiboetan; horri esker, langileak azterketa, zerbitzu eta etengabeko hobekuntzako jardueretan zentratu daitezke.

Helburua da Arabako Foru Aldundiko langile publikoen denbora balio handiagoko eginkizunetarako optimizatzea, barne prozesuak hobetzea eta datuetan oinarritutako zerbitzu proaktibo zein pertsonalizatuak gaitzea, aldi berean algoritmoen erabilera seguruan gardentasuna, trazabilitatea eta etika bermatuta.

Onurak

Herritarrenganako eragina

- Herritarren esperientzia erraztea, izapide arinagoak, proaktiboagoak eta pertsonalizatuagoak eskainiz.

Barne eragina

- Administrazio efizientzia handitzea, prozeduren izapidetze eta kontrolari lotutako denborak zein kostuak murriztuz.
- Erakundearen jasagarritasuna bultzatzea, giza baliabideak askatuz balio erantsi handiagoko, sormenezko eta herritarrei arreta emateko eginkizunetara bideratzeko.
- Prozesuen kalitatea eta koherentzia hobetzea, eskuzko akatsak murriztuz eta trazabilitatea bermatuz, automatizazioaren eta adimen artifizialaren arteko integrazioaren bidez.



Helburu espezifikoak

- Herritarrekiko elkarreragina erraztea, zerbitzu proaktiboak eta pertsona ardatz dutenak sustatuz, haien beharrei aurrea hartuz eta esperientzia digital arin zein eskuragarria bermatuz.
- Barne efizientzia bultzatzea prozesu errepikakor eta konplexuen automatizazio estrategikoaren bidez, teknologia aurreratuetan txertatuz lan fluxuetan izapidetze prozesuak eta administrazio kontrola optimizatzeko.

Funtsezko ekintzak

- Automatizatu daitezkeen prozesuak identifikatzea eta lehenestea.
- Arabako Foru Aldundiko prozesuak ikustea, neurtzea eta hobetzea, prozesuak optimizatzeko tresnen erabilaren bidez.
- Kanal elektronikoetan (egoitza, atariak eta aplikazioak) integratutako elkarrizketa AA bidezko laguntzaile birtualak diseinatzea eta hedatzea.
- Automatizazioa eta analitika prediktiboa txertatzea eskaerei aurre hartzeko, baliabide publikoen esleipena optimizatzeari eta herritarrekiko komunikazio proaktiboa sortzeari begira.
- Automatizazio prozesuen erabilera zuzenean etika eta gardentasunari buruzko trebakuntza ematea IKT taldeei eta kudeatzaileei.
- Automatizazioaren jarraipena egiteko eta haren efizientzia neurtzeko agente koadroak ezartzea.



2A.5L: AAren gobernantza

“Adimen artifizialeko eredu seguru, etiko eta gobernatua garatzea, gardentasuna, erantzukizuna eta balio publikoa bermatuko dituen”

AAren gobernantza jarduketa lerroan Arabako Foru Aldundiaren barruan adimen artifizialeko sistemak modu seguruan, arduratsuan, etikoan eta indarreko araudia betez garatu, hedatu eta erabiltzeko kontrol neurriak zehaztea eta ezartzea da ardatz nagusia.

Alde batetik, AA eginkizun kognitiboak burutzeko, informazio konplexua aztertzeko eta erabakiak hartzeko ezagutza baliagarria sortzeko gai diren sistema eta ereduak multzoa da. Beste aldetik, AA agenteen orkestrazioa sistema bateratu baten barruan AA agente anitz elkarrekin lan egiteko koordinatzen laguntzen duen prozesu gisa definitzen da.

Estrategia Digitalaren eta Informatikaren Zerbitzuak AA kudeatzeko estrategia bat garatu behar du, ikuspegi seguru, etiko eta arduratsutik abiatuta barne zein kanpo laguntza mekanismoak hedatuko dituen, betetzea, gardentasuna eta balio publikoa bermatuz.

Lerro honek Arabako Foru Aldundiaren modernizazio teknologikoa bultzatuko du irtenbide adimendunak onartuz eta azpiegitura komun batean txertatuz, AA agenteen arteko elkarlana eta elkarrekingarritasuna ahalbidetzeko.

Onurak

Herritarrenganako eragina

- Herritarrek zerbitzu publiko digitaletan duten konfiantza sendotzea.

Barne eragina

- Arabako Foru Aldundiari AA agenteen integrazioa, berrerabilpena eta koordinazioa modu seguruan erraztea.

Helburu espezifikoak

- AAren erabilera seguru, etiko eta arduratsua bermatzea, barne segurtasuneko gidalerroak eta prozedurak ezarriz.
- Agente orkestratzaile baten bidez Arabako Foru Aldundiak dituen AA agente ugariak koordinatzea, sistema bateratu baten barruan elkarrekin lan egin dezaten.



Funtsezko ekintzak

- AAren gobernanzarako batzorde bat sortzea, AAren erabileraren eraginaren aurretiko analisia egingo duena eta AAren erabileraren kontrola sustatuko duena erakundearen AA ekimen guztien erregistroaren bidez.
- Arabako Foru Aldundiko langileentzat AAren erabilera arduratsuan trebatzeko eta sentsibilizatzeko plan bat garatzea.
- AAren Europako Erregelamenduan (RIA), Europako AI Act-en zehaztutako etika, ekitate, gardentasun eta datu babesarako printzipioak betetzea, Adimen Artifizialaren Euskal Estrategia eta BAIC zein BAIDATA erakundeak erreferentziazat hartuta.
- AA datu publikoen kudeaketan, arreta eta erantzun automatizatuko sistemetan eta zerbitzu prediktiboetarako zein analitika aurreraturako datu gobernantzaren ereduetan txertatzea.
- AA agenteak koordinatzeko azpiegitura komun bat ezartzea, eredu eta zerbitzuen (barnekoak eta hirugarrenenak) arteko zereginak koordinatzea ahalbidetuko duena.



3. ardatza: Herritar Digitalak

“Herritarrek eraldaketa digitalaren erdigunean jartzea, zerbitzu publiko eskuragarriak, inklusiboak eta haien benetako beharretara bideratutakoak bermatuz”

Herritarrek egon behar dute administrazio publiko baten barruko hainbat urtetarako estrategia digital guztien erdigunean. Eraldaketa digitala ezin da soilik prozesu teknologiko gisa ulertu; aitzitik, pertsonen benetako beharretara egokitutako zerbitzu gertukoagoak eta efizienteagoak eskaintzeko aukera bat da. Ildo horretan, funtsezkoa da **zerbitzu publiko digitalak garatzea eta finkatzea**, herritarrek administrazioa modu arin eta seguruan jotzeko aukera izan dezaten, denborak murriztuz, izapideak erraztuz eta zerbitzuaren kalitatea hobetuz.

Era berean, ezinbestekoa da **pertsonak ardatz dituen administrazio bat bultzatzea**, non prozesu eta tresna digitalak azken erabiltzailea gogoan hartuta diseinatuko baitira, harreman gizatiarragoa, gardenagoa eta parte hartzaileagoa bultzatuz. Digitalizazioak konfiantza sendotzen eta administrazioaren eta gizartearen arteko elkarrenergina errazten lagundu behar du.

Halaber, erronka nagusietako bat **herritarrekiko esperientzia eta komunikazioa hobetzea** da, arreta pertsonalizatuagoa eta informazio argia ahalbidetuko dituzten kanal eskuragarriak, intuitiboak eta eraginkorrak eskainiz. Azkenik, estrategiak **zerbitzu publikoetarako sarbide unibertsala bermatu** behar du, inor baztertuta geratu ez dadin arrazoi teknologiko, sozial edo funtzionalengatik. Horrela, administrazioak ongizate komunera bideratutako eredu digital inklusibo, moderno eta aurreratu baterantz egiten du aurrera.

Helburu hori lortzeko, honako jarduketa lerro hauek egituratzen dira:

- 1L: Zerbitzu publiko digitalak garatzea eta finkatzea.
- 2L: Pertsonak ardatz dituen administrazio bat bultzatzea.
- 3L: Herritarrekiko esperientzia eta komunikazioa hobetzea.
- 4L: Herritarrek zerbitzu publikoetarako duten sarbidea (unibertsala) bermatzea.



3A.1L: Zerbitzu publiko digitalak garatzea eta finkatzea

“Edozein unetan eskuragarri, fidagarri eta erabilgarri dauden zerbitzu digitalak eskaintzea, herritarren bizitza errazteko diseinatuak”

Jarduketa lerro honen helburua da herritar guztiek, enpresa sektorea barne, zerbitzu publiko digital eskuragarriak, fidagarriak, kalitate handikoak eta une oro erabilgarri daudenak izatea bermatzea, sartzeko erabiltzen den kanala edozein dela ere.

Aldundiak prestazio digitalaren eredu bat finkatu nahi du, aurrez aurreko zerbitzuak formatu elektronikoan errepikatu ez ezik, zerbitzu horiek herritarrengana bideratuz birdefinituko dituen, efizientzia, erraztasun eta proaktibitateko irizpideak jarraituz.

Zerbitzu publiko digitalak garatzeko, azpiegitura teknologiko sendo, seguru eta elkarreragingarri bat behar da, barne sistemen integrazioa, izapidetze elektroniko aurreratua eta kanal ororen bidezko arreta ahalbidetuko dituen.

Onurak

Herritarrenganako eragina

- Herritarren konfiantza eta gogobetetze handiagoa, Arabako lurralde historiko osoan gehien eskatzen diren zerbitzuen erabilgarritasunari eta koherentziari esker.

Eragina Arabako Foru Aldundian

- Arabako lurralde historiko osoan zerbitzu publiko digitaletarako sarbidea unibertsalizatzea.

Helburu espezifikoak

- Funtsezkoak diren eta gehien eskatzen diren zerbitzu publiko digitalak garatzea eta finkatzea, modu seguru eta gardenean, eta sarean eskuragarri daudenak.
- Herritarren eta administrazioaren arteko elkarreragin iraunkorra eta kanal anitzekoa (24/7) erraztea.
- Barne kudeaketako sistemak herritarrentzako kanalekin integratzea, trazabilitatea, kanal ororen erabilera eta koherentzia bermatuz.



Funtsezko ekintzak

- Funtsezko zerbitzuen eta gehien eskatzen direnen digitalizazio osoa egitea, Aldundiaren lehentasunezko zerbitzuak sarean erabilgarri, eskuragarri eta bitarteko guztietara egokituta daudela ziurtatzeko.
- Atari eta plataforma digitalak berritzea eta barne sistemekin integratzea, herritarren esperientzia etengabea eta koherentea bermatzeko.
- Kanal anitzeko eredutik kanal ororen bidezko arreta eredu baterantz eboluzionatzea, non kanal guztiak integratuta dauden.
- Azpiegitura sendo eta segurua: zerbitzu digitaletan informazioaren erabilgarritasuna, eskalagarritasuna, babesa eta konfidentzialtasuna ziurtatuko dituzten arkitekturak hedatzea.



3A.2L: Pertsonak ardatz dituen administrazio bat bultzatzea

“Zerbitzu digitalak pertsonen beharretatik abiatuta diseinatzea, administrazioarekiko harreman gertukoagoa, parte hartzaileagoa eta seguruagoa sustatuz”

«Pertsonak ardatz dituen administrazio bat bultzatzea» jarduketa lerroaren helburua herritarrek administrazioaren digitalizazio prozesuaren erdigunean jartzea da, administrazio digital erraz, parte hartzaile, eskuragarri eta seguru bat sustatuz. Horretarako, zerbitzu digitalak pertsonen behar, gaitasun eta eskubideetatik abiatuta diseinatu, kudeatu eta ebaluatzen dituen ikuspegi bat txertatzen du, elkarrekin bakoitzean eskuragarritasuna, parte hartzea, segurtasuna eta pertsonalizazioa bermatuz.

Orientazio horrekin, herritarren konfiantza eta parte hartzea sendotu nahi dira, eraldaketa digitalak herritarrek Aldundiarekiko harremanean duten esperientzia benetan hobetzen duela ziurtatuz.

Onurak

Herritarrenganako eragina

- Gardentasuna handitzea eta zerbitzu publiko digitaletan herritarren parte hartzea sendotzea, dakartzaten onura eta herritarrentzako balioa indartuz.

Barne eragina

- Eraldaketa digitala etikari, eskuragarritasunari eta datuen babesari lotutako balioekin lerrotzea.

Helburu espezifikoak

- Administrazio digital erraza, parte hartzailea eta gardena sustatzea.
- Zerbitzu digitalen eraldaketa bultzatzea pertsonen premiak ardatz dituen eredu proaktibo baterantz.
- Konfiantza digitala sendotzea zerbitzu digitalei aplikatutako segurtasun, pribatasun eta etika teknologikoko politiken bidez.

Funtsezko ekintzak

- Zerbitzu digital proaktiboak eta pertsonalizatuak garatzea; horretarako, prozesu osoan zehar herritarren lagunduko dioten laguntzaile birtualak, elkarrekin laguntzaileak eta izapidetze fluxu automatizatuak txertatuko dira.



- Kanal anitzeko arreta eredu integratu bat ezartzea, aurrez aurreko kanalak eta kanal digitalak uztartuz.
- Eragin handiko zerbitzuetan elkarriketa laguntzaileen proiektu pilotuak sustatzea, haien ezarpena eta eskalatzea ebaluatuz.
- Kanal eta zerbitzu guztietan segurtasun, pribatutasun eta konfiantza digitaleko protokoloak definitzea eta aplikatzea.



3A.3L: Herritarrekiko esperientzia eta komunikazioa hobetzea

“Herritarren konfiantza eta parte hartzea sendotuko dituen elkarreragin digital argi, eskuragarri eta pertsonalizatua sustatzea”

Jarduketa lerro honen helburua administrazioaren eta pertsonen arteko harreman digitala sendotzea da, norabide biko komunikazio gardena, pertsonalizatua eta eskuragarria sustatuz. Horretarako, elkarreragin gertukoago bat lortzera bideratutako politika, tresna eta zerbitzu digitalen multzoa integratzen du, uneoro eskuragarritasun unibertsala bermatuz. Herritarren esperientzia ardatz duen arretarantz eboluzionatzea bilatzen da, kanal digitalak eta aurrez aurrekoak uztartuz, konfiantza eta parte hartzea sendotuz, eta teknologiak demokrazia eta inklusioa errazten dituela ziurtatuz.

Funtsezko elementu gisa, identitate digital bakarra, segurua eta unibertsala txertatuko da; horri esker, herritarrek beren burua identifikatu eta zerbitzu publikoetara modu arin eta fidagarrian sartu ahal izango dira. Eredu horrek izapideak erraztuko ditu, konfiantza digitala sendotuko du eta esperientzia pertsonalizatuagoa eta koherenteagoa erraztuko du administrazioarekiko harremanean.

Onurak

Herritarrenganako eragina

- Herritarrek zerbitzu publiko digitalekin dituzten esperientzia eta gogobetetzea hobetzea.
- Herritarren beharrei emandako arreta eta erantzunean pertsonalizazio handiagoa lortzea.
- Erakundeekiko komunikazioan gardentasuna eta trazabilitatea hobetzea.

Barne eragina

- Irudi korporatibo digital koherente eta homogeneoa finkatzea.

Helburu espezifikoak

- Herritarrekiko harremanean gardentasuna eta konfiantza digitala sendotzea, presentzia digital egokia ziurtatuz komunikazio koherente baten bidez eta haien beharretara egokituta.
- Herritarren parte hartzea indartzea, entzute aktiboa, proposamenak egitea eta herritarren, gizarte zein enpresa sarearen eta Aldundiaren arteko etengabeko elkarreragina erraztuz.
- Komunikazio digitaleko kanalen jarraitutasuna eta erabilgarritasuna bermatzea.



- Foru Administrazioaren barne eta kanpo sistemak konektatzeko gai den identitate digital elkarreragingarriko plataforma bat finkatzea.

Funtsezko ekintzak

- Jakinarazpen eta komunikazio kanalak eredu proaktiboetara optimizatzea, izapideen egoerari buruzko ohar automatikoak eta denbora errealeko informazioa barne hartuz.
- Lankidetzarako plataforma eta tresna digitalak sortzea, hala nola foroak eta solasguneak, herritarrek Arabako Foru Aldundiak eskaintzen dituen behar digitalei buruz dituzten kezak eta interesak adierazi ahal izan ditzaten, erabakiak hartzeko prozesuan haien ahotsak entzungo direla ziurtatzeko.
- Foru Administrazioaren zerbitzu guztietarako sarbide digital bakarra ezartzea, autentifikazio segurua eta ekintzen trazabilitatea eskaintzen dituen.
- Kanal digitalen erabilgarritasuna eta erresilientzia bermatzea, sistemen monitorizazioaren eta erredundantziaren bidez.



3A.4L: Herritarrek zerbitzu publikoetarako duten sarbidea bermatzea

“Edozein arrakala digital mota saihestuko duen eta zerbitzu publikoetarako sarbide unibertsala bermatuko duen digitalizazio inklusiboa ziurtatzea”

«Herritarrek zerbitzu publikoetarako duten sarbidea bermatzea» jarduketa lerroaren xedea da eraldaketa digitala inklusiboa, bidezkoa eta unibertsala izango dela ziurtatzea. Horrela bermatu nahi da pertsona guztiek, beren adina, kokapena, hezkuntza maila, gaitasunak edo baliabide teknologikoak edozein izanda ere, Foru Administrazioaren zerbitzu digitalak erabili eta horien onura guztiak jaso ditzaketela. Era berean, lurralde kohesioa sustatuko da, Arabako lurralde historikoko landa eremuetan zerbitzu etarako sarbide bidezkoa bermatuz eta inklusio digitala bultzatuz informazio eta sentsibilizazio programen bidez.

Konpromiso hori zerbitzu publiko guztietan eskuragarritasun unibertsaleko irizpideak, hizkera argia, pertsonak ardatz dituen diseinua eta kanal aniztasuna txertatzean datza.

Eskuragarritasuna ez da soilik ikuspegi teknikotik ulertzen; aitzitik, ezinbesteko baldintza da etengabe aldatzen ari den ingurune digital batean ekitatea, parte hartzea eta gizarte zein lurralde kohesioa lortzeko.

Aldundiak modernizazio teknologikoa eta giza laguntza uztartuko dituen ikuspegi integral bat sustatuko du, «Herritarren Esperientzia Digitala» zeharkako printzipio gisa bultzatuz, elkarrekin, talde zaurgarriekin eta gizarte erakundeekin lankidetzan, digitalizazio prozesuan inor atzean geratuko ez dela bermatzeko.

Onurak

Herritarrenganako eragina

- Arrakala digitala (geografikoa, belaunaldien artekoa, generoarena edo sozioekonomikoa) murriztuko duten eta oztopo teknologikoak kenduko dituzten zerbitzu digital inklusiboak eta eleaniztunak sustatzea.
- Erabilgarritasuna eta erabiltzailearen esperientzia hobetzea, pertsonak ardatz dituen diseinuaren eta hizkera argiaren bidez.

Barne eragina

- Zerbitzu digitalak ematean efizientzia eta koherentzia handiagoa lortzea, interfazeak eta eskuragarritasun irizpideak estandarizatzeari esker.



Helburu espezifikoak

- Herritarrei digitalizazioarako trantsizioan laguntzea arreta eredu hibrido baten bidez (aurrez aurrekoa eta digitala), herritar guztiei arreta emango zaiela ziurtatzeko.
- Zerbitzu publiko digital guztiak eskuragarriak, inklusiboak eta erabilgarriak direla ziurtatzeko, nazioarteko estandarrekin bat etorritik.
- Identitate digital inklusibo bat garatzea, bai pertsonentzat bai enpresentzat, zerbitzu publikoetarako sarbidea errazteko.

Funtsezko ekintzak

- “Herritarren Esperientzia Digitala” programa garatzea, herritarren kolektiboekin (adinekoak, desgaitasuna duten pertsonak, landa eremuak) baterako diseinuan oinarrituta, zerbitzuak, hizkera eta kanalak egokitzeak, honako hauen bidez:
 - Talde zaurgarriak informazioa, sentsibilizazioa eta laguntza emateko programak, arrakala digitalak murrizteko, ziurtagiri elektronikoen erabilera arreta berezia jarritik.
 - Hizkera argia, diseinu inklusiboa eta herritarrek ardatz dituen ikuspegia aplikatzea atari eta zerbitzu digital guztietan.
 - Tresna digital eskuragarriak, eleaniztunak eta hainbat kolektiborentzat egokitutakoak garatzea.
 - Kanal inklusiboak eta eleaniztunak ezartzea, aurrez aurreko aukerak eta aukera digitalak bermatuz.
- Inklusioa eta lurralde kohesioa, landa eremuetara sarbide digitala zabaltzeko, konektagarritasunaren eta lagundutako irispide puntuen bidez.
- Telefono kanala lagundutako izapidetzerako plataforma digital bihurtzea, eskuragarri dauden elkarrizketa laguntzaileen euskarriarekin.
- Herritarrentzat eta enpresentzat identitate digital bakarra ezartzea, sarbideak erraztuz eta “Behin bakarrik” printzipioa aplikatuz.



4. ardatza: Eraldaketa digitala

“Pertsonak ardatz dituen administrazio moderno eta efizientea bultzatzea, barne prozesu, zerbitzu eta gaitasunen eraldaketa digital integralaren bidez”

Eraldaketa digitala administrazio efizienteago, gertukoago eta herritarrengana bideratuago bat lortzeko zutabe estrategiko nagusietako bat da. Ez da soilik teknologia txertatzea, baizik eta prozesuak, zerbitzuak eta lan egiteko moduak birpentsatzea, epe ertain eta luzera benetako eragin jasangarria sortzeko. Esparru horretan, administrazioa erraztea funtsezko elementua da kargak murrizteko, bikoiztasunak ezabatzeke eta herritarrek zein enpresek administrazioarekin duten harremana errazteko.

Era berean, lanpostuaren digitalizazioa eta aldaketaren kudeaketa ezinbestekoak dira pertsonak trebatzeko, gaitasun berriak sustatzeko eta antolaketa kultura arinagoa, kolaboratzaileagoa eta berritzaileagoa finkatzeko. Arkitektura teknologikoaren modernizazioak aldaketa horretarako beharrezkoa den oinarria ematen du, sistema sendoagoak, seguruagoak eta eskalagarriagoak bermatuz, egungo eta etorkizuneko beharrekin lerrotuta.

Zerbitzu digitalen eraldaketa horrek irtenbide eskuragarriagoak, pertsonalizatuagoak eta erabiltzaileen esperientzia erdigunean hartzen dutenak eskaintzea ahalbidetuko du, datuen eta teknologi berrien ahalmena aprobetxatuz. Oro har, jarduketa lerro horiek eraldaketa digitalaren ikuspegi integrala osatzen dute, etengabeko hobekuntzaren, efizientzia publikoaren eta gizartearentzako balioa sortzearen eragile gisa.

Esparru horretan, honako jarduketa lerro hauek ezartzen dira, Arabako Foru Aldundi erabat digital baten eraikuntzan modu koherente eta koordinatuan aurrera egiteko bidea emango dutenak:

- 1L: Administrazioa erraztea.
- 2L: Lanpostuaren digitalizazioa eta aldaketaren kudeaketa.
- 3L: Arkitektura teknologikoaren modernizazioa.
- 4L: Zerbitzu digitalen eraldaketa.



4A.1L: Administrazioa erraztea

“Administrazio arinagoa eta errazagoa, kargak murrizten dituen eta herritarrek ardatz dituen izapide koherente eta gardenak eskaintzen dituen”

Administrazioa erraztea eta zerbitzu publikoen digitalizazioa funtsezko elementuak dira herritarrengandik gertuago dagoen administrazio arinago eta efizienteago bat lortzeko, zerbitzu publiko azkarragoak, ulergarriagoak eta eskuragarriagoak eskaintzeko gai dena.

Lerro honen bidez, administrazio prozedurak berrikusi, birdiseinatu eta automatizatu nahi dira, beharrezkoak ez diren izapideak ezabatuz, kudeaketa denborak murriztuz eta herritarren zein Arabako Foru Aldundiaren arteko elkarreragin erraz, proaktibo eta digitala bermatuz.

Koherentzia, elkarreragingarritasunean eta jasangarritasun teknologikoan oinarritutako kudeaketa eredu bat sustatuko da, plataforma digital komunean, berrerabili daitezkeen zerbitzuetan eta erabiltzailearen esperientzia, diseinu bidezko segurtasuna eta erakundearen produktibitatea ardatz dituen ikuspegian oinarritua.

Onurak

Herritarrenganako eragina

- Administrazioaren arreta hobetzea, administrazio izapide arinagoak, proaktiboagoak eta pertsonalizatuagoak eskainiz.

Barne eragina

- Erakundearen jasangarritasuna bultzatzea, administrazio prozesuak erraztuz eta etengabe hobetuz.
- Administrazio izapideak arintzea, denborak optimizatuz eta kudeaketak erraztuz.

Helburu espezifikoak

- Administrazio prozedurak erraztea, esperientzia digital arin eta eskuragarria bermatuz.
- Izapidetze denborak eta administrazio kargak murriztea herritarrentzat eta enpresentzat.
- Zerbitzu publiko digitaletan berrikuntza eta etengabeko hobekuntza sustatzea.



Funtsezko ekintzak

- Administrazio prozeduren berringeniaritza prozesuen meatzaritza aplikatuz; horretarako, prozesuak identifikatu, botila lepoak hauteman, erredundantziak ezabatu eta fluxuak erraztuko dira.
- Automatizazio adimenduneko zerbitzuak ezartzea, izapidetzean denborak eta akatsak murrizteko.
- Zerbitzu partekatuen eta osagai berrerabilgarrien katalogo bat garatzea, gobernantza zentralarekin eta API normalizatuekin.
- Kudeaketa digitalari eutsiko dioten plataforma partekatu, jasangarri eta eskalagarriak sustatzea.
- Administrazioaren sinplifikazio digitalaren efizientziaren, kalitatearen eta eraginaren etengabeko jarraipen eta ebaluaziorako sistema komun bat ezartzea.



4A.2L: Lanpostuaren digitalizazioa eta aldaketaren kudeaketa

“Lan ingurune moderno eta segurua, gaitasun berriak, elkarlanerako moduak eta etorkizuneko erronketara egokitutako kultura digitala bultzatuko dituen”

Lerro honen bidez, Arabako Foru Aldundiak langile publikoen lan ingurunea modernizatzea eta eraldaketa digitala Aldundian modu homogeneo, eraginkor eta jasangarrian hartzen dela ziurtatzera bideratutako jarduketak integratu nahi ditu. Lerro honek lanpostu digital eta adimendun baterako bilakaera eta trebakuntza digitala eta antolaketa aldaketaren kudeaketa uztartzen ditu, pertsonak eraldaketa prozesuaren erdigunean jarrita.

Pertsonak erdigunean jartzen dituen lanpostu korporatiboaren eredu baterantz egiten da, segurtasuna, eskuragarritasuna, mugikortasuna eta lankidetzaz uztartuz. Eredu hau edozein leku eta gailutatik lan profesionala egitea errazten duten teknologietan oinarritzen da, une oro jarraitutasun operatiboa, informazioaren babesa eta zerbitzu publikoaren eskaintza efizienteagoa ziurtatuz. Horretarako, ekipamendua modernizatzeari, konektagarritasuna hobetzeari, urruneko sarbiderako irtenbideak hartzeari eta taldeen arteko elkarlan modu zeharkakoagoak bultzatzeari heltzen zaio.

Orobat, jarduketa lerro honen helburua da eraldaketa digitala Arabako Foru Aldundian eraginkortasunez ezartzen dela ziurtatzea, langile publikoak aldaketaren funtsezko elementu gisa jarritz. Administrazioaren digitalizazioak teknologia ez ezik, kultura, antolaketa eta gaitasunen bilakaera ere eskatzen du, pertsonen beren lana ingurune digital, kolaboratzaile eta datuetara bideratutakoetan egin dezaten.

Onurak

Barne eragina

- Kultura digital berritzaile eta parte hartzailea hartzea, aldaketara egokitzeko gaitasun handiagoa duena.
- Arabako Foru Aldundian tresna eta zerbitzu digitalen erabilera eraginkorra optimizatzea.
- Sailen arteko barneko eta zeharkako lankidetzaz hobetzea.
- Joan-etorriak eta ingurumen inpaktua murriztea.

Helburu espezifikoak

- Lanpostu digital adimendun, eskuragarri, seguru eta malguaren eredu baterantz eboluzionatzea, lan eredu hibridoak bultzatuko dituen.



- Berrikuntzan, gardentasunean, lankidetzan, etengabeko ikaskuntzan eta etika digitalean oinarritutako kultura digitala sustatzea.
- Dokumentuen kudeaketarako, komunikaziorako eta talde lanerako lanabes kolaboratzaile korporatiboak txertatzea, lan eredu berriaren oinarri gisa.
- Urruneko lan inguruneetan datuen babesa eta segurtasun informatikoa bermatzea.
- Lidergo digitala eta aldaketaren kudeaketa sendotzea zuzendaritzako eta tarteko mailetan.

Funtsezko ekintzak

- Lanpostu Adimendunaren eredua diseinatzea eta ezartzea.
 - Lankidetzarako tresna korporatiboak hedatzea (bideokonferentzia, txata, proiektuen kudeaketa, dokumentu koedizioa).
 - Langile publikoen ekipamendua eta gailuak berrikustea eta modernizatzea (lanpostuko ekipamendua berritzea).
 - Zerbitzuaren mugikortasuna eta jarraitutasuna bermatzeko irtenbideak ezartzea.
 - Berdintasun, unibertsaltasun eta eskuragarritasun digitalaren ikuspegia txertatzea lan ingurunearen diseinuan (interfaze inklusiboak, hizkera argia, ergonomia digitala).
- Arabako Foru Aldundiko langileentzat profil eta rolen arabera Trebakuntza Digitaleko Plan Integral bat diseinatzea eta ezartzea, honako ibilbide hauek izango dituenak:
 - Gaitasun digital oinarritzakoak eta aurreratuak, erkidegoko eta Europako esparruekin lerrokatuak.
 - Lankidetzarako tresnak eta produktibitatea.
 - Zibersegurtasuna, arrisku digitalen prebentzioa, etika digitala eta AA arduratsua.
 - AA, automatizazio adimenduna, prozesuen hobekuntza eta datuen analitika alor publikora aplikatuta.
 - Lanpostu digital adimenduna eta lan hibridoa.
 - Dokumentuen kudeaketa eta izapidetze digitala.
 - Lidergo digitaleko programak arduradun eta tarteko karguei zuzenduak.



- Prestakuntza eduki berriak pixkanaka txertatzea, bilakaera teknologikoaren eta antolakuntzaren bilakaeraren arabera.
- Kultura aldaketa sustatuko duten aldaketaren kudeaketako programa egituratuak garatzea: barne komunikazioa, taldeei laguntzea, ezartzeko laguntza ematea eta erresistentziak murriztea, komunitate digitalen eta baterako sorkuntzarako gune birtualen bidez.



4A.3L: Arkitektura teknologikoaren modernizazioa

“Zerbitzu publikoen erresilientzia, segurtasuna eta bilakaera bermatuko dituen arkitektura teknologiko sendo, elkarreragingarri eta jasangarria”

Arabako Foru Aldundiaren arkitektura teknologikoaren modernizazioa funtsezko lerro estrategikoa da administrazio efizienteago, seguruago, elkarreragingarriago eta jasangarriagoa lortzeko. Lerro honek aplikazioen parkea berritzea eta teknologia berriak erabiltzea bultzatzen du (hala nola administrazio prozesuen eta barne sistemen optimizazioa), bai eta hodei korporatibo hibridoko azpiegitura bat finkatzea ere, norberaren baliabideak hodeiko zerbitzu publikoekin uztartuz. Horrela, sailen arteko integrazio teknologikoa erraztuko duen eta erresilientzia teknologikoa eta jarraitutasun operatiboa ziurtatuko dituen arkitektura teknologikoa sustatzen da.

Oro har, lerro honek efizientzia, elkarreragingarritasuna eta jasangarritasuna uztartzen dituen arkitektura teknologikoaren eraldaketa integrala bultzatzen du, zerbitzu digitalak emateko eredu moderno, malgu eta balio publikora bideratua gaituz. Hura ezartzeari esker, digitalizazioaren aurrerapenari eutsi eta Arabako Foru Aldundiak egungo eta etorkizuneko erronkei erantzuteko duen gaitasuna indartuko duen oinarri teknologiko sendo bat eraiki ahal izango da.

Horrela, Arabako Foru Aldundiak herritarren, enpresen eta administrazio erakundearen beraren beharretara modu dinamikoan egokitzeko gaitasuna hobetzen du.

Onurak

Herritarrenganako eragina

- Zerbitzu publiko digitalen erabilgarritasun eta jarraitutasun handiagoa.

Barne eragina

- Barne kudeaketan eta zerbitzu berrien hedapenean efizientzia eta arintasun operatiboa hobetzea, denborak, kostuak eta konplexutasun teknologikoa murriztuz.
- Arabako Foru Aldundiko sailen arteko elkarreragingarritasuna eta kohesio teknologikoa handitzea.
- Azpiegituren jasangarritasun teknologiko eta energetikoa hobetzea eta karbono aztarna murriztea.

Helburu espezifikak

- Aplikazio korporatiboen ekosistema modernizatzea teknologia aurreratuak erabiliz.



- Ingurune teknologiko elkarreragingarria, segurua eta behar berrietara egokitzeko gaitasuna duena finkatzea.
- Zerbitzu digitalen erresilientzia, erabilgarritasuna eta jarraitutasun operatiboa ziurtatzea.
- Zerbitzu digital komunak eta berrerabilgarriak bultzatzea, hodeiko (Cloud) azpiegiturak barne, sistemen efizientzia eta homogeneotasuna hobetzeko, baliabideak optimizatzeko eta eraldaketa digitala azkartzeko.

Funtsezko ekintzak

- Aplikazio korporatiboen parkea modernizatzea, sistema zaharkituak irtenbide modular, integragarri eta jasangarriekin ordeztuz.
 - Aplikazioen parkearen inbentario bateratu bat garatzea, funtzionaltasuna, erabiltzaileak, teknologiak eta lizentziak identifikatuz.
 - Funtsezko sistemak sailkatzea eta lehenestea, balio estrategikoaren eta berritzeko premiaren arabera.
 - Arkitektura teknologiko komun baterantz bilakatzea, big data, AA eta analitika aurreratua txertatzen dituzten irtenbide modularretan eta zerbitzuetara bideratutakoetan oinarrituta.
 - Edukiontzia orkestratzeko eta kudeatzeko tresnak hartzea, aplikazioen hedapen arin, seguru eta eskalagarria erraztuz.
- Administrazio jasangarriago baterantz egiten lagunduko duten prozesu digital eta trazagarriak ezartzea.
- APlen, mikrozerbitzuen eta liburutegi komunen bidez zeharkako osagai berrerabilgarriak garatzea, Arabako Foru Aldundiko sail guztietan har daitezen sustatzeko.
- Hodei hibridoko eredu korporatibo bakar bat ezartzea, ingurune publikoak eta pribatuak uztartuz, segurtasuna, efizientzia eta jarraitutasuna bermatuko dituen, kudeaketa eredu (eginkizunak, arauak eta estandarrak) zehaztuz eta sistemak eta zerbitzuak ingurune elkarreragingarri eta segurueta pixkanaka migratuz.
- Jasangarritasuna handitzea, datu zentroak kontsumo baxuko irtenbideekin eta ekonomia berdeko irizpideekin modernizatuz.
- Aplikazioen eta zerbitzuen errendimendua, erabilgarritasuna eta kalitatea etengabe monitorizatzeko mekanismoak ezartzea.



4A.4L: Zerbitzu digitalen eraldaketa

“Zerbitzu publiko digital adimentsuagoak, automatizatuagoak eta pertsonalizuagoak, etikaren, gobernantzaren eta teknologiaren erabilera arduratsuaren printzipioen pean eraikiak”

Zerbitzu digitalen eraldaketa funtsezko jarduketa lerroa da herritarrek ardatz dituen administrazio moderno eta efiziente bat eraikitzeko. Lerro honek automatizazio adimenduna, orkestrazio eta monitorizazio operatiboa, eta sistemen eta administrazioen arteko elkarreragingarritasuna bultzatzen ditu, barne kudeaketa optimizatzeko, zerbitzu publikoen kalitatea eta erabilgarritasuna hobetzeko, eta esperientzia digital osoa, erraza, kanal anitzekoa eta proaktiboa eskaintzeko.

Gaitasun horiek pixkanaka txertatuta, langile publikoak eginkizun errepikakorretatik askatu eta efizientzia operatiboa hobetu daiteke. Berrerabilpen eta estandarizazio teknologikoa bultzatzen du, zerbitzuen segurtasuna eta jarraitutasuna ziurtatzen ditu, trazabilitatea eta gardentasuna bermatzen ditu, eta erabaki sentikorren gaineko giza kontrolari eusten dio. Datuetan eta negozio arauetan oinarritutako planteamendu horrek administrazio moldagarria, eskalagarria eta etengabeko hobekuntzara bideratua bultzatzen du.

Oro har, lerro honek zerbitzu digitalen kudeaketa integral eta koordinatua bultzatzen du, plangintza, eragiketa eta ebaluazio sistematikoan oinarrituta, herritarrei emandako balioa maximizatzeko eta Arabako Foru Aldundiak bere etengabeko modernizazio prozesuan duen egokitze gaitasuna sendotzeko.

Onurak

Herritarrenganako eragina

- Herritarrentzako zerbitzu publiko digitalen kalitatea, fidagarritasuna eta erabilgarritasuna hobetzea.

Barne eragina

- Kudeaketa teknologikoan eta barne prozesuetan segurtasuna, trazabilitatea eta kalitatea sendotzea, eskuzko akatsak murriztuz eta sendotasun operatiboa hobetuz.
- Sailen arteko koordinazio handiagoa eta zerbitzu digitalen ikuspegi bateratua lortzea.
- Bikoiztasunak murriztea eta osagai teknologiko komunak gehiago berrerabiltzea.
- Papera eta dokumentu fisikoak gutxiago erabiltzea, paperik gabeko administrazioa lortzeko bidean.



Helburu espezifikoak

- Zerbitzuen kudeaketan etengabeko hobekuntzaren eta erakunde lankidetzaren kultura finkatzea.
- Barne efizientzia bultzatzea teknologia aurreratuen bidez, lan fluxuetan izapidetze prozesuak eta administrazio kontrola optimizatzeko.
- Administrazioen eta zerbitzuen arteko integrazio teknologikoa ziurtatuko duen elkarreragingarritasun esparru komun bat ezartzea.
- Teknologia berrien erabileran etika eta gardentasuna sustatzea ingurune digital bidezko bat bultzatuz.
- Sistema automatizatuen auditoria eta erabaki sentikorren gaineko giza kontrola bermatzea.

Funtsezko ekintzak

- Gobernantza eta etika
 - IKT gobernantza eredu bat definitzea, zerbitzuak kudeatzeko eginkizun, erantzukizun eta prozedura komunak arautuko dituena.
 - Prozesu automatizatuak aplikatu beharreko algoritmoen kontrol, auditoria eta gardentasun esparru bat ezartzea, erabaki sentikorrean giza kontrola ziurtatuz.
- Prozesuen automatizazioa eta optimizazioa
 - Automatizatu daitezkeen prozesuak identifikatzea eta lehenestea.
 - Arabako Foru Aldundiko prozesuak ikustea, neurtzea eta hobetzea, prozesuak optimizatzeko tresnen erabileraren bidez.
 - Espedienteen kudeaketarako, barne kontrolerako eta zeharkako zerbitzuetarako robotizazio tresnak txertatzea.
 - Adimen artifizialeko teknologiak txertatzea prozesuak optimizatzeko eta gorabeherak hautemateko.
 - AA teknologia eta ikaskuntza automatikoa txertatzea prozesuak optimizatzeko, eskaerei aurre hartzeko eta baliabide publikoen kudeaketa efizientea egiteko.
 - Automatizazio adimenduneko proiektu pilotuak ezartzea, horiek efizientzian, kostuetan eta herritarren gogobetetzean duten eragina ebaluatuz.
 - Berrerabili daitezkeen prozesu automatizatuen biltegi korporatibo bat sortzea, estandarizazioa sustatuko duena.



- Elkarreragingarritasuna eta plataforma komunak
 - Lan digitalerako eta sailen arteko komunikaziorako zeharkako plataformak finkatzea, erakunde lankidetzak sustatuz.
 - Elkarreragingarritasunerako eta berrerabilpen teknologikorako esparru bat garatzea, APIak, zerbitzu komunak katalogoak eta integrazio estandarrak barne hartuta.
- Eragiketa, orkestrazioa eta monitorizazioa
 - Automatizazio operatiboa, monitorizazioa eta sistemen errendimenduaren hobekuntza ahalbidetuko duten kudeaketa eta orkestrazio plataformak diseinatzea eta ezartzea.
 - Automatizazioaren jarraipena egiteko eta haren efizientzia neurtzeko agente koadroak ezartzea.
 - AA agenteen orkestratzailearekin integratzea, automatizazioa, analitika eta erabaki adimendunak uztartzeko.
- Herritarren esperientzia eta kanal aniztasuna
 - Kanal anitzeko izapidetzea automatizatzea, barne sistemak atariekin, aplikazioekin eta telefono bidezko arretarekin konektatuz.
 - Automatizazioa eta analitika prediktiboa txertatzea herritarrekiko komunikazio proaktiborako.
 - Informazio eta zerbitzu publikoetarako sarbide digital osoa erraztea, dokumentu fisikoak ezabatuz eta herritarren esperientzia erraztuz.
- Ebaluazioa eta etengabeko hobekuntza
 - Eraldatutako zerbitzuen kalitatea eta eraginkortasuna monitorizatzea eta ebaluatzea, irtenbideak datuetan oinarrituta doitu.
 - Kudeaketa digitalaren efizientzia eta eragina aldizka ebaluatzea adierazle objektiboen bidez.
 - Automatizaziorako eta elkarreragingarritasunerako jardunbide egokien gidak eta gomendioak eguneratzea.



Planaren gobernantza

Arabako Foru Aldundiaren eta Foru Sektore Publikoaren Estrategia Digitalaren Plana (2026-2030) modu iragazkorrean zabalitzen da Arabako Lurraldeko beharrekiko loturaren eta adierazitako funtsezko ekintzek denboran zehar duten etengabeko bilakaeraren bila, eta deskribatutako jarduketaren jarraipena eta kontrola bermatuko duten hainbat solaskide eta arduradun dituen egoera bat zehazten du.

Horregatik, gure ustez Plan honek segida izango du egituratzen den ardatz nagusietatik abiatuta, eta ardatz horien gainean proiektu berriek estaldura eta aurrerapena emango dizkiete ekintza berriei 2030etik harago aurkezten den egoeraren aurrean.

Segida horrek, zalantzarik gabe, inguruko gainerako agenda digitalekin lerrokatzea eta Europako erreferentia kontuan hartuko ditu.

Estrategia Digitalaren Planak bere helburu orokorren hedapena modu **dinamiko, etengabe eta ebolutiboan** finkatzea du helburu.

Parte hartze eta lankidetzarako egiturak Planaren jarraipenerako gobernantza eta antolaketa eredu bat islatzen du, non foru sektore publikoko erakundeetako, sailetako, gobernu kontseiluko, Zerbitzu Orokorraren Zuzendaritzako eta Estrategia Digitalaren eta Informatikaren Zerbitzuko arduradunen ahotza esanguratsua den erabakiak hartzeko eta ondorengo jarraitutasunerako.

Laburbilduz, planaren gobernantza eredu hau Arabako Lurraldeko ekosistemaren parte hartzerako ikuspegi integratzaile gisa aurkezten da, Arabako Foru Aldundiko sailek eta Foru Sektore Publikoko erakundeek modu koordinatuan lagunduta, gauzatze mailak, kontrola eta Planaren jarraipenetik eratorritako behar berriak bideratzeko.

Antolaketa eredu

Plana osatzen duten funtsezko jarduketaren jarraipena **Estrategia Digitalaren Zuzendaritza Batzordean** egingo da. Bertan, Estrategia Digitalaren eta Informatikaren Zerbitzuak gidatu eta bultzatuko du jarraipena, Arabako Foru Aldundiko sailetako arduradunekin (Zerbitzu Orokorrak, Ogasuna, Berdintasuna, Euskara eta Gobernantza, Lurralde Oreka eta Gizarte Zerbitzuak), Arabako Kalkulu Zentroarekin (AKGAB) eta, hala badagokio, parte hartu behar duten foru sektore publikoko erakundeetako ordezkariekin koordinatuta.

Arabako Foru Aldundian eta Foru Sektore Publikoan Estrategia Digitalaren 2026-2030 Planak denboran zehar izango duen aurrerapen dinamiko eta etengabea berrikusi eta lerrokatuko da, jarraipen egitura osatzen duten arduradunek eskatzen duten neurrian, eta horrek egitura horren egokitzapena eta bilakaera ahalbidetuko ditu.

Arabako Foru Aldundiko sailen eta Foru Sektore Publikoko erakundeen ordezkari gisa, Estrategia Digitalaren Zuzendaritza Batzordea sortzen da. Horren bidez hartuko dira Planean zehaztutako lerro estrategikoak osatzen dituzten funtsezko ekintzen ezarpen egoerari dagozkion erabaki estrategikoak.



Estrategia Digitalaren Zuzendaritza Batzordea funtsezko organo gisa eratzen da gainerako sailekin eta foru sektore publikoko erakundeekin koordinatzeko eta lerrokatzeko, helburu argi batekin: batetik, Planaren hedapenaren egoera eta bilakaera dinamizatzea, bultzatzea, komunikatzea eta Arabako Foru Aldundia, erakunde autonomoak eta gizarte publikoak osatzen dituzten instantziei horien berri ematea; eta, bestetik, Arabako Foru Aldundiaren estrategia digitalari jarraitutasuna emango dioten gidalerro estrategikoak ezartzea.

*Sei hilean behin, batzorde horrek Plan honen eraginkortasuna bermatzeko **eginkizun eta jarduketa** hauek burutuko ditu:*

- Funtsezko ekintzen hedapena eta ezarpena bultzatzea, Estrategia Digitalaren eta Informatikaren Planaren ardatzetan jasotako lerro estrategikoen arabera.
- Gobernu kontseiluari Estrategia Digitalaren Planaren jarduketaren egoeraren eta bilakaeraren berri ematea, baita aurrerapen, behar eta gorabeheren buruzkoa ere, ahal den neurrian.
- Estrategia Digitalaren Planaren funtsezko ekintzei lotutako helburuen betetze maila berrikustea.
- Planaren jarduketak ezartzean sortzen diren gorabeherak eta/edo behar berriak berrikustea eta horien berri modu egokian ematea.
- Plan honetako jarduketak abian jartzearen eraginkortasuna bermatzeko beharrezkoak diren erabaki estrategikoak eta kudeaketakoak hartzea.
- Arabako Foru Aldundiko sailei eta Foru Sektore Publikoko erakundeetako arduradunei informazio eta prestakuntzarako komunikazioak egitea.
- Inguruko beste gizarte teknologiko batzuetako eta administrazio publikoetako solaskideekiko barne eta kanpo komunikazioa eta koordinazioa (sinergiak) sustatzea, estrategia digitalak aurrera egin eta eboluzionatzeko.
- Arabako ekosistemako beste agente batzuekin koordinatutako jarduketak ezartzea Estrategia Digitalaren Plana eguneratzeko eta egokitze, 2030etik harago jarraitutasuna emango duten ekimen berrien aurrean.

Arabako Foru Aldundiaren estrategia digitalaren hedapen eta jarraipen operatiboaren maila **Estrategia Digitalaren eta Informatikaren Zerbitzuaren** bidez egingo da. Zerbitzu hori Planean jasotako funtsezko ekintzak koordinatzeko eta gauzatzeko unitatea da, eta Planaren lerro estrategikoei lotutako helburuak zein neurritan lortzen eta betetzen diren zainduko du.

Estrategia Digitalaren eta Informatikaren Zerbitzua bihurtzen da organo nagusi, esleitutako konpetentzietan oinarrituta, Planean zehar deskribatutako jarduketa guztiak modu zeharkako eta koordinatuan bultzatuko dituen Estrategia Digitalaren Zuzendaritza Batzordearekin koordinatuta.



Horretarako, Arabako Kalkulu Zentroko (AKGAB) eta Antolaketa eta Berrikuntza Zerbitzuko arduradunekin arituko dira lankidetzan, eta, beharrezkoa bada, digitalizazio eta eraldaketa digitaleko proiektuak hedatzeko prozesuan dauden Arabako Foru Aldundiko zerbitzuetako arduradunekin.

Hiru hilean behin, Estrategia Digitalaren eta Informatikaren Zerbitzuak Estrategia Digitalaren Zuzendaritza Batzordeari jakinaraziko dizkio funtsezko jarduketaren garapenari buruzko bilakaera eta aurrerapena, programatutako helburuen betetze egoera, bai eta horretarako erabilgarri dagoen aurrekontua ere.

Era berean, Planaren gauzatzearen jarraipena izaera operatiboagoko eginkizun hauen bidez egingo da:

- Ekintza planak argitaratzea Estrategia Digitalaren Planaren funtsezko jarduketaren arabera, eta horien jarraipena egitea ezarritako proiektuen arabera.
- Arabako Foru Aldundiko unitateetako arduradunekin koordinazio eta komunikazio bilerak ezartzea, egindako jarduketaren aurrerapen egoeraren jarraipena eta egiaztapena egiteko, AKGABrekin koordinatuta.
- Planaren lerro estrategikoetan kokatutako ekintzen garapen egokiari eragiten dioten gorabeherak aztertzea eta ebaztea.
- Jarduketak lerrokatzea eta Arabako Foru Aldundiaren Estrategia Digitalaren Planaren jarduketaren hedapenak ukitutako gainerako batzordeei informazioa ematea (adibidez, Informazioaren Segurtasuneko Zuzendaritza Batzordeari).
- Urte natural bakoitzeko funtsezko ekintzen programazioa egitea, Estrategia Digitalaren Zuzendaritza Batzordearekin koordinatuta.
- Helburuen eta haien adierazleen betetze egoeraren eta mailaren jarraipena eta analisisa egitea, aginte koadro eguneratuen bidez.
- Kanpoko solaskide eta erakundeekin (Cyberzaintza, BAIC...) koordinatzea, Planean aurreikusitako jarduketaren aurrerapena eta egokitasuna bermatzeko.
- Programatutako jarduketaren bideragarritasuna, hedapena eta egokitasuna aztertzea, baita Estrategia Digitalaren Planean proiektu berriak sor ditzaketen jarduketena ere.

Deskribatutako eginkizunetaz gain, koordinazio eta lidergoko beste eginkizun batzuk ere aurreikusten dira, Planaren ekintzak ezartzeko behar diren abian jartzea eta kontrol eraginkorra bermatzeko.

Gauzak horrela, **batzordeak** eratu ahal izango dira horri lotuta eta Planean jasotako eraldaketa digitaleko proiektuen arabera (beharrezkoa balitz), Zuzendaritzetako / Zerbitzuetako arduradun eta ordezkariekin, baita Foru Sektore Publikoko erakundeetakoekin ere. Batzorde horiek hilerok egingo dute jarraipena, egiten ari den digitalizazio proiektuaren hedapen eta garapen egokia bermatzeko.



Hori guztia dela eta, ezinbestekoa da egindako monitorizazio eta jarraipen guztia urteko jarraipen txostenetan jasotzea, **Arabako Foru Aldundiko gobernu kontseilua** osatzen duten pertsonen komunikatu ahal izateko.

Gobernu kontseilua Arabako Foru Aldundiaren ordezkaritza eta erabaki organo gorena da; horregatik, Estrategia Digitalaren Planaren aurrerapen egoeraren berri eman beharko zaio, gutxienez urtean behin. Nolanahi ere, Estrategia Digitalaren Zuzendaritza Batzordeko ordezkariak aldizka emango dio informazioa, funtsezko zenbait jarduketaren hedapenak dakarren eraginaren arabera.

Jarraipena

Estrategia Digitalaren Planaren ardatz bakoitza osatzen duten funtsezko jarduketak zuzenean lerrokatuta daude lerro estrategiko bakoitzaren helburuekin.

Definitutako helburu bakoitzak berriazko analisi bat dakar, hautatutako adierazleen bidez.

Horien jarraipena eta kontrol eraginkorra bermatzeko, beharrezkoa da neurketak aldizka (hilero) egitea eta erregistroak eta adierazleen aginte koadroa eskura izatea; erregistro horretan, bildutako informazioaren osotasuna bermatu behar da.



JARRAIPENAREN ADIERAZLEAK

1. ARDATZA. ZIBERSEGURTASUNA ETA KONFIANTZA DIGITALA ARDATZA

Ingurune digital seguru eta fidagarria bermatzea, datuak, zerbitzuak eta azpiegiturak babestuko dituen.

1L: Segurtasun politikak ezartzea	Informazioaren Segurtasuna Kudeatzeko Sistemara egokitutako zerbitzu publikoen kopurua handitzea, SENen gomendioetan oinarrituta.
2L: Prebentzioa eta erantzuna	Gorabehera hautemateko batez besteko denbora eta gorabeherak konpontzeko denbora hobetzea.
3L: Zibersegurtasuneko kontzientziazioa eta trebakuntza	Langile publikoei zuzendutako zibersegurtasuneko kontzientziazio, prestakuntza eta trebakuntza ekintzen kopurua handitzea.

2. ARDATZA. DATUAREN GOBERNANTZA ETA AA ARDATZ ESTRATEGIKOA

Datua eta adimen artifiziala kudeatzea erabakiak hobeto hartzeko, eskubideak bermatzeko eta balio publikoa sortzeko

1L: Datuen gobernantzarako erakunde esparru bat ezartzea	DFaren barruan definitutako prozesuei dagokienez, datuaren kalitate eta segurtasun politiken betetze maila handitzea.
2L: Datuen kudeaketa eta truke gardena	Erakundeen artean argitaratutako eta berrerabilitako zerbitzu elkarreragingarrien kopurua handitzea.
3L: "Data-driven" kultura bultzatzea	Aginte koadro (dashboard) operatiboak garatzea eta erabiltzea.
4L: Zerbitzu publikoak eta barne digitalizazioa	Laguntzaile birtualek artatutako herritarren kontsulten ehunekoa handitzea.
5L: AAren gobernantza	AA irtenbide aktiboak dituzten administrazio unitateen kopurua handitzea.

3. ARDATZA. HERRITARRAK ARDATZA

Herritarrak eraldaketa digitalaren erdigunean jartzea, zerbitzu publiko eskuragarriak, inklusiboak eta haien benetako beharretara bideratutakoak bermatuz.

1L: Zerbitzu publiko digitalak garatzea eta finkatzea	24/7 erabilgarritasuna duten zerbitzuen kopuruaren bilakaera eta zerbitzu publiko digitalen batez besteko erantzun denbora murriztea.
2L: Pertsonak ardatz dituen administrazio bat bultzatzea	Plataforma digitaletan edo lankidetzatza prozesuetan herritarren parte hartzea bilatzen duten elkarlanerako inguruneen kopurua handitzea.
3L: Herritarrekiko esperientzia eta komunikazioa hobetzea	Elkarriketa laguntzaileek edo laguntzaile birtualek lagundutako elkarrekintza kopurua handitzea.
4L: Herritarrek zerbitzu publikoetarako duten sarbidea bermatzea	Herritarrek zerbitzu digitalen eskuragarritasunarekin eta erabilgarritasunarekin duten gogobetetze maila eta Zerbitzu digital nagusien erabileraren ehunekoa, sexuaren eta adin tartearen arabera segregatuak



4. ARDATZA. ERALDAKETA DIGITALA ARDATZA

Pertsonak ardatz dituen administrazio moderno eta efizientea bultzatzea, barne prozesu, zerbitzu eta gaitasunen eraldaketa digitalaren bidez.

1L: Administrazioa erraztea	Erraztutako eta digitalizatutako administrazio prozeduren ehunekoa handitzea.
2L: Lanpostuaren digitalizazioa eta aldaketaren kudeaketa	Langile publikoei zuzendutako teknologia berrietako prestakuntza ekintzen kopuruaren bilakaera.
3L: Arkitektura teknologikoaren modernizazioa	Modernizatutako tresna digitalekiko barne gogobetetze indizea.
4L: Zerbitzu digitalen eraldaketa	Herritarrek zerbitzu digitaletan duten gogobetetze indizea.

Era berean, lerro estrategiko bakoitzak herritarrengan duen eragina ezagutzeko, ezinbestekoa da parte hartzeko tresnak izatea eta zuzeneko nahiz zeharkako feedbacka jasotzea gutxienez urtean behin, herritarren itxaropenak eta beharrak Estrategia Digitalaren Planaren proiektuen hedapenarekin zein neurritan betetzen diren neurtzeko. Gainera, informazioa sexuaren arabera bereizita biltzeko ahalegina egingo da, eta, hala dagokionean, baita adinaren, lurraldearen edo beste aldagai garrantzitsu batzuen arabera ere, zerbitzu digitalen erabilera maila aztertzeko, egon daitezkeen desberdintasunak detektatzeko eta emakumeen eta gizonen benetako berdintasuna lortzen lagunduko duten neurri zuzentzaileak sustatzeko.

Beharrezkoak diren baliabideak

Plan estrategiko hau behar bezala gauzatzeko, beharrezkoa izan daiteke pixkanaka giza baliabideez, baliabide materialez, teknologikoez eta antolakuntzakoez hornitzea, aurreikusitako jardueren garapena bermatzeko, bai eta haiek koordinatzeko, kontrolatzeko, haien jarraipena egiteko eta ebaluatzeko ere.

Baliabide horiek ekitaldi ekonomiko bakoitzean dagoen aurrekontu erabilgarritasunaren arabera eta aplikatu beharreko plangintza eta kudeaketa prozeduren arabera esleituko dira, eta plan honek ez du eragingo indarrean dagoen araudiaren arabera baimentzen den gastu konpromisoaz bestelako konpromisorik.

Era berean, aurreikusitako jarduketan plangintza operatiboa eta gauzatze eraginkorra errazteko, lehentasunaren, heldutasun mailaren eta baliabideen eskuragarritasunaren arabera zehazten diren proiektuak kasuan kasuko Proiektuen Urteko Planean sartuko dira, osorik edo partez.